

20 21

ERMUKO KIROLAREN

PLAN ESTRATEGIKOA



Kirola, pertsonentzat
pentsatutako hiri
adimendun eta jasangarri
batean.



murua:

ANALISIA

01. SARRERA 3

02. TESTUINGURUA 4

02.1 LURRALDEA

02.2 DEMOGRAFIA

02.3 UDALAREN ANTOLAMENDUA

03. KIROLA PRAKTIKATZEKO INSTALAZIOAK ETA ESPAZIOAK 13

03.1. KIROLDEGIAK

03.2 KANPOALDEKO ESPAZIOAK ETA
EKIPAMENDUAK

04. KIROL PRAKTIKA ERMUAN 36

04.1. UDAL KIROLA

04.1.1. UDAL KIROL ERAKUNDEA (UKE)

04.1.2 KIROL ZERBITZUAK

04.2. KIROL KLUBAK

04.3. ESKOLA KIROLA

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

KIROLERAKO ESTRATEGIAK ERMUKO HIRI AGENDAN 71

LURRALDEA 74

1. IBILBIDE SAREA
2. HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
3. ESPAZIO IRISGARRIAK ETA
JASANGARRIAK
4. EKITALDIEN PROGRAMA

GIZARTEA 91

5. EGITURAK ETA EKOSISTEMA
6. ERMUA MUGI
7. KIROL INKLUSIBOA
8. BERDINTASUNA KIROLEAN
9. EUSKARA ETA KIROLA

EKONOMIA 102

10. KIROL EKINTZAILTZA

GOBERNANTZA ADIMENDUNA 105

11. KIROL TRANSBERTSALA
12. DATUAK ETA EZAGUTZA

KRONOGRAMA 111



**20
21**

ANALISIA

**ERMUKO
KIROLAREN**
PLAN ESTRATEGIKOA

01. SARRERA



Jarduera fisikoaren eta kirolaren garrantzia onartzea funtsezkoa da, bizi ohitura osasungarriak dituzten herritar osasuntsuak sustatzeko eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko.

Errealitate horren jakitun, Ermuko Udalak urteak daramatza konprometituta eta udalerrian jarduera fisikoa eta kirola sustatzen. Kirol instalazioen eraikuntza eta mantentze lanak, kolektibo desberdinentzako kirol programen diseinua eta eskaintza, edo hiriko kirol eragileei eskainitako babesa eta elkarlana Udalak hiriari eta bizilagunei begira hartua duen konpromisoaren adibide argiak dira.

Bestalde, kirolaren sektorea garatzen eta eraldatzen ari da etengabe, eta joera nahiz

jarduera berriek gero eta konplexuago eta erakargarriago bihurtzen dute. Horrez gainera, gizarteak aldaketak eskatzen ditu kirol praktikari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, etengabe aztertu eta egokitu behar dira kirol jarduerak sustatzeko politika publikoak.

Edozein arlotan politikak garatzean, ezinbestekoa da abiapuntuko egoera aztertzea, estrategia jakin batzuk planteatuz eta garatuz desiragarriak diren helburuak erdietsi ahal izateko.

Dokumentu hau 2020ko martxoan hasitako osasun krisialdiaren aurretik Ermuan zegoen kirol errealitatearen argazki bat da.

02. TESTUINGURUA



02.1 Lurraldea

Ermuko udalerria Bizkaiko Lurralde Historikoaren ekialdeko muturrean kokatuta dago, Gipuzkoarekin mugan eta Durangaldearen barruan. Hegoaldean Zaldibarrekin (Bizkaia) du muga; mendebaldean, Mallabiarrekin (Bizkaia), eta ekialdean, Eibarrekin (Gipuzkoa).

Haran estu batean dago, Ego ibaiaren ertzean (Deba ibaiaren adarra). Hegal malkartsuak dituen lursail irregularra denez eta espazio txikia duenez, Euskadin biztanle dentsitate handiena duen udalerrietako bat da.



Ermuaren orografia Ego ibaiaren haranaren amaieran kokatuta egoteak baldintzatzen du. Oiz (1.026 m) eta Urko (793 m) mendiek inguratzen dute, eta Zaldibar eta Elgetaranzko norabidean Egoarbitza mendia dago (700 m ingurukoa).

Komunikazio bide nagusia N-634 errepide nazionala da, BI-3344 bihurtzen dena udalerritik igarotzean. Eibarko saihesbidetik Ermuko saihesbidera iristen da, eta hortik AP-8 autobidearen ordainlekura Uretamendin. Bi azpiegitura horiek eta Euskotrenen trenak Donostiarekin eta Bilborekin lotzen dute Ermua.

02.2 Demografia




Ermuak **16.019 biztanle** ditu (EUSTAT 2020/01/01). Erregimen demografiko modernoaren biztanleria egitura tipikoa dauka, hau da, biztanleria zahartzen ari da, eta jaiotze tasa txikitzen.

Biztanleriaren generoari dagokionez, kopurua nahiko parekatua da adin tarte guztietan, eta 70 urtetik gorako biztanleen artean bakarrik nagusitzen dira emakumeak, bizi itxaropen handiagoa izaten dutelako.

Biztanleria egitura erregresiboari berezkoa zaion moduan, biztanleria piramidea zabaldu egiten da 35 urtetik gora, eta egonkor mantentzen da 74 urteetaraino. 0-34 tartean, adin talde desberdinek maila oso antzekoak dauzkate.

Ermuko biztanleria piramidea, 2019




Adin talde handiei erreparatuz gero, biztanle gehienak, erdiak baino gehiago (%57,9), 20 urtetik 64 urtera bitarteko helduak dira; kopuru hori Bizkaiko eta Euskadiko batezbestekoa baino bi puntu txikiagoa da.


Betalde, haur eta gazteen (0-19 urte) kopurua %17,3koa da, eta 65 urte edo gehiago dituztenena, berriz, %22,7koa; EAEko batezbestekoekin alderatuta, gazteen ehunekoa txikixeagoa da, eta adinekoena, aldiz, handixeagoa.

0-19 eta 20-64 adin taldeetan, gizonak emakumeak baino ugariagoak dira, eta aldea handiagoa da bigarren kasuan (portzentajezko hiru puntu). Alde handiena adineko biztanleen artean dago: ia 4 puntu eta erdikoa da.

Biztanleen %, adin talde handien eta sexuaren arabera.




Adin-talde handien alderaketa.



19 urtetik beherako eta 20 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleen ehunekoei dagokienez, Ermua Bizkaiko eta EAEko batezbestekoetatik behera dago.

Aitzitik, 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen ehunekoaren kasuan, probintziaren batezbestekoa berdintzen du, eta biak dira Euskadiko batezbestekoa baino handixeagoak.



Ermuko biztanleen %6,7 (1.086) atzerrian jaioetako herritarrek dira.

Ekialdeko Europa 60
Europako gainerakoak 87
Magrebeko herrialdeak 465
Afrikako gainerakoak 129

Hego Amerika 161
Amerikako gainerakoak 124
Asia eta Ozeania 60

02.3 Udalaren antolamendua


Ermuko Udala arduratzen da udalerria gobernatzeaz.

Udal Administrazioa

Udal Administrazioa honako hauek osatzen dute: udal organo betearazlea (alkatea eta Gobernu Batzordea) eta Udalbatza, arauzko funtzioak dituen, 17 zinegotzik osatua eta alkatea buru duena.

Kudeaketa lanetarako, Udala bost dibisio sektorial handitan antolatzen da. Horiei alor funtzional deritze, eta udalaren giza baliabideen eta baliabide teknikoaren plangintzan, antolakuntzan eta goi integrazioan inizatiba ahalmena duten organo administratiboak dira.

Arlo funtzionalak



Gainera, Ermuko Udalak izaera juridiko berezia duten bi organismo autonomo dauzka, Euskalategia eta **Udal Kirol Erakundea**, eta Udal Sozietate Anonimo bat, PROMOSA; horiek beren eskumeneko jardura eta zerbitzuen kudeaketan eraginkortasun hobea izateko sortu ziren.

Gobernu estrategia eta jarduna: mapa estrategikoa.

Ermuko Udalaren mapa estrategikoa etorkizuneko belaunaldiekiko konpromiso bat da. Hori dela eta, epe luzerako helburu batzuk zehazten ditu, abiapuntutzat hartuta bere misioa eta izateko arrazoiak, jardueraren indar sustatzaile gisa duen ikuspegia eta erakundearen balioak. Era berean, teknologian eta berrikuntzan oinarritzen da, horiek arrakastarako faktore kritikotzat hartuta.

2019an, beste elementu bat hartu da kontuan udal estrategia prestatu eta berrikustean. Garapen jasangarrirako helburuen (GJH) ikuspegia da, eta horri esker hausnartu eta zehaztu egin da zer neurritan laguntzen den udalerritik mundu osorako konpromiso horiek betetzen eta nola hobetu daitekeen ekarpen hori udal kudeaketatik.

Ermuko Udalaren misioa, ikuspegia eta balioak



MISIOA



IKUSPEGIA



BALIOAK



BALIOAK

Tokiko arlotik zerbitzu publikoak eskaintzea, hiriaren eta bertan bizi direnen premiei, igurikimenei, erronkei eta aukerei erantzuteko. Sareetan lan egitea, finantzazioa lortzeko eta ezagutza sortu eta partekatzeko. Modu aktiboan sustatzen ditugu garapen soziala eta jasangarritasun ekonomikoa eta ingurumenekoa. Horretarako, taldean lan egiten dugu, kalitatea, metodoa, eraginkortasuna eta berrikuntza aplikatuz, eta errespetuan, entzutean nahiz gardentasunean oinarrituta, erakundeko pertsonen hazkunde integrala mesedetzeko.

Ermua hiri jasangarria eta bizitzeko, lan egiteko eta inbertitzeko hiri erakargarria izatea lortu nahi da. Parte hartzea bultzatuko duen hiri irekia izatea, eta bertan pertsona guztiak integratuta sentitzea, eta askatasunean eta berdintasunean erabat garatzeko aukera izatea. Herritarrak parte hartuko duten proiektu komun baten inguruan kohesio kultura sortu nahi da. Eta Ermuko Udalarekin konprometituta dauden profesionalak eduki, erakundea eraldaketa, berrikuntza eta gardentasunaren erreferente izan dadin.

HERRITARREI BEGIRAKOAK

Balio hauek zerbitzu publikoak ematean herritarrekin erlazionatzeko moduan islatzen dira.

- Publikotasuna
- Justizia
- Herritarren partaidetza
- Elkartasuna
- Berdintasuna
- Gardentasuna
- Eraginkortasuna

ERAKUNDE KULTURARENAK


Hauek dira Udala erakunde gisa definitzen duten eta eguneroko jokabidea bideratzen duten balioak:

- Metodoa
- Jasangarritasun ekonomikoa
- Komunikazio arin eta irekia
- Aitortza
- Etengabeko ikaskuntza
- Taldeko lana
- Koherentzia/Erantzukizuna
- Lidergoa
- Epe luzerako ikuspegia/ Balio partekatua/ Gizarte erantzukizuna

EREMU


**ILDO
ESTRATEGIKO
AK**

**GARAPEN
JASANGARRIRA
KO HELBURUAK**



Ermuko Udala **Ermuko Hiri Agenda** prestatzen ari da, eta lanean dihardu ikuspegi estrategikoa aztertzeko eta 10 urterako Ezarpen Plan bat zehazteko, aukera emango duena **Hiri Estrategia** %100ean egokitzeko **Espainiako Hiri Agendak** proposatutako ikuspegiarekin.

Ermuko Udal Mapa Estrategikoan jasotako oinarri estrategikoa Hiri Agendarekin lerrokatuta dago.





LURRALDEA

LURRALDEA eremu estrategikoko proiektuek inpaktu handia izango dute hiri eremuan, espazio publikoaren kalitatean, konektibitatean zein irisgarritasunean, eta udalerriaren inguruko ingurune naturalaren zaintzan. Planteatutako proiektuak bat datoz hiri aktiboaren ereduaren postulatuarekin, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Estrategikoak bere estrategietan sartu behar ditu proiektu horiek.




GIZARTEA

GIZARTEA eremu estrategikoko proiektuek berdintasun, ekitate eta elkarbizitzako jarraibide argiak ezartzen dituzte. Era berean, helburu zehatzak aipatzen dira Kirol Alorrerako, eta, osasunaren arloan, Ermua Mugi proiektuaren aldeko apustua egiten da. GIZARTEA eremu estrategikokoak bide-erakusle izan behar du, alderdi soziala txertatzeko kirolean eta jarduera fisikoaren sustapenean.



EKONOMIA eremu estrategikoko proiektuek ez dituzte berariaz aipatzen jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako proiektuak edo zerbitzuak. Hala ere, kirolak berrikuntza eta enplegua sortzeko eskaintzen dituen aukerak eta kirol ekitaldien potentziala planteatu egin behar dira Plan Estrategikoan, Garapen Ekonomikoko alorrerako interes lerrotzat aurkeztu ahal izateko.



GOBERNANTZA ADIMENDUNA eremu estrategikoko proiektuek kiroleko udal eredu berri baten gobernantzarako bide-erakusle izan behar dute; eredu berri horretan, Udaleko Kirol Alorra dinamizatzailea edo bideratzailea izango da, eta udalerriko gainerako kirol eragileekin elkarlanean aritzeko eta parte hartzeko tresnak eskainiko ditu.


03. KIROLA PRAKTIKATZEKO INSTALAZIOAK ETA ESPAZIOAK



Ermuan, 22 instalazio, 53 kirol espazio eta 85 espazio konbentzional daude, herritarrek kirola eta jarduera fisikoa egiteko.

La denak Udalaren titulartasunekoak dira; ikastetxeetan eta jabetza pribatuetan kokatuta daudenak dira salbuespena.

Kiroldegiak, kanpoaldeko ekipamenduak eta espazioak



Instalazio pribatu bereziak

- 5 Izelaieta pilotalekua



Ikastetxeetako kirol instalazioak

- 17 Anaitasuna Ikastola EP
- 18 Ongarai Eskola
- 19 San Pelayo ik. prib.
- 20 San Lorenzo HLHI
- 21 UNI Eibar-Ermua BHI




Kanpoaldeko espazioak eta ekipamenduak

- 6 Orbe Kardinala Udal Pilotalekua
- 7 Skate Parkea
- 8 Santa Ana parkea
- 9 Okinzuri parkea
- 10 San Lorenzo parke osasungarria
- 11 San Pelayoko bolatokia
- 12 Calva pista
- 13 Marqués de Valdespina petanka pista
- 14 San Pelayo parkea
- 15 Aeromodelismo zirkuitua
- 16 Berano-Errekalde igerileku naturala




3.1 Udal kiroldegiak




Instalazioetara sarrera

2020an bildutako datuen berezitasuna kontuan hartu gabe, grafikoak erakusten du 2017az geroztik pixkanaka behera egin duela udal kiroldegietarako sarrera kopuruak. Nolanahi ere, urtetik urtera hazi egiten da UKEn zerbitzuetara abonatu dauden erabiltzaileen kopurua. Datu horiek agerian uzten dute erabiltzaileek gutxiagotan erabiltzen dituztela udalaren kirol instalazioak.



Instalazioen erreserbak

M.A. Blanco Kiroldegiko pistaren, Betiondo Kirol Guneako pistaren eta futbol zelaiaren eta Aritzmendi Pilotalekuko pistaren erabilera ordu asko erregulariki egiten diren jardueretarako erreserbatuta daude, hala nola: UKEk eskainitako jardueretarako, kolektibo espezifikoen jardueretarako, klub jardueretarako, Gorputz Hezkuntzako eskoletarako eta Eskola Kiroleko jardueretarako.



Instalazio/ekipamenduak erreserbatzeko tarifak

ERRESERBAK			
		1 ORDU	1,5 ORDU
PADELA	ABONATUAK	4,20	6,30
ARITZMENDI KIROL EREMUA	EZ-ABONATUAK	PISTA ERRESERBATZEKO PREZIOA+ SARRERAREN PREZIOA	
		1 ORDU	
SQUASH	ABONATUAK	DOAN	
M.A. BLANCO KIROLDEGIA	EZ-ABONATUAK	SARRERAREN PREZIOA	
		1 ORDU	ORDU FINKOA ASTERO (hilean)
PILOTALEKUA	ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 16:00AK ARTE	DOAN	-
ARITZMENDI KIROL EREMUA	ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 16:00AK ARTE	10,25	46,15
	ASTEBURUAK ETA JAIEGUNAK	10,25	46,15
		1 ORDU	ORDU FINKOA ASTERO (hilean)
KIROL ANITZEKO PISTA	LANEGUNAK, OSOA	41,45	138,6
M.A. BLANCO KIROLDEGIA	LANEGUNAK, KIROL ANITZEKO MODULUA	15,5	46,15
BETIONDO KIROL GUNEA	LANEGUNAK, BETIONDO MODULUA	29	46,15
	ASTEBURUAK ETA JAIEGUNAK	27	138,6
		1 ORDU	ORDU FINKOA ASTERO (hilean)
FUTBOL ZELAIA	LANEGUNAK, OSOA	53,85	168
BETIONDO KIROL GUNEA	LANEGUNAK, FUTBOL 7	35	89,75
	ASTEBURUAK ETA JAIEGUNAK, FUTBOL 11	37,85	168
	ASTEBURUAK ETA JAIEGUNAK, FUTBOL 7	24,8	89,75
		1 SAIO	5 SAIOKO BONUA
SAUNA ETA LURRUN BAINUA	ABONATUAK	DOAN	-
30 MINUTUKO SAIOAK	EZ-ABONATUAK	5,3	23,8
		1 SAIO	5 SAIOKO BONUA
UVA IZPIEN KABINA BERTIKALA	ABONATUAK	4,45	19,95
8 MINUTUKO SAIOAK	EZ-ABONATUAK	7,35	34,15
		1 SAIO	5 SAIOKO BONUA
SPA EREMUA	ABONATUAK	DOAN	-
HIDROMASAJEA TXORROEKIN	EZ-ABONATUAK	SARRERAREN PREZIOA	




Miguel Ángel Blanco Udal Kiroldegia

Diputazio kalea z/g
48260, Ermua

Miguel Ángel Blanco Udal Kiroldegia Ermuko hegomendebaldean kokatuta dago, leku zabal eta iristerrazean. 9 kirol espazio eta 18 eremu osagarri dauzka, eta bertan daude Ermuko Udal Kirol Erakundearen bulegoak ere.

Instalazioa erabat egokituta dago, kirolarien eta bisitari/ikusleen irisgarritasuna bermatzeko eta zirkulazioa ahalbidetzeko barnealdean zein kanpoaldean.



KIROL ESPAZIOAK ETA OSAGARRIAK

- **Muskulazio gela 1 (116m²)**
Gizonentzako komuna, emakumeentzako komuna.
Aldagelak: emakumeentzat, gizonentzat eta desgaituentzat.
- **Muskulazio gela 2 (276 m²)**
Fitness emakumeentzako komuna
Fitness gizonentzako komuna
- **Ariketa kardiobaskularrerako gela (253 m²)**
- **Erabilera anitzeko gela (64 m²)**
- **Aerobic egiteko gela (268 m²)**
- **Squash pista (58,8 m²)**
- **Erabilera anitzeko pista (1.150 m²)**
Kirol biltegia 2, Kirol biltegia 3
Gizonentzako aldagela 1, gizonentzako aldagela 2
Emakumeentzako aldagela 3, emakumeentzako aldagela 4
Arbitroentzako aldagela 1, arbitroentzako aldagela 2
- **Kirola egiteko igerileku estalia (312,2 m²)**
Kirol biltegia 1
Igerilekurako gizonentzako aldagela
Igerilekurako emakumeentzako aldagela
- **Aisialdirako igerileku estalia (40 m²)**

Zerbitzu osagarriak

Termala: bainu turkiarra, sauna eta hidromasajea.
Zerbitzu orokorrak: sarrerako kontrola, bulegoak eta ekitaldietarako aretoa.

Kirol anitzeko pistaren erabilerak: banaketa

M.A. Blanco Udal Kiroldegiko pistak urtean zehar modu jarraituan egiten diren jardueretarako erreserbatuta daude, neurri batean.


Grafikoan ikusten denez, astelehen eta ostiraletan ordu erabilgarri guztien %50 inguru daude erreserbatuta.

Goizeko eta arratsaldeko ordutegi banaketari erreparatuz gero, aldea nabarmena da, eta arratsaldez goizez baino askoz handiagoa da okupazioa.



Pistaren erreserba gehienak, %40, kirol klubek jardunari lotutakoak dira; horien atzetik Udal Kirol Erakundeak eskainitako ikastaroak eta adinekoentzako ikastaro espezifikoak daude, erreserbatutako orduen %26rekin.

Bestalde, udalerriko ikastetxeetan ez dagoenez kalitate oneko behar adina kirol instalazio, eskola orduetan Gorputz Hezkuntza egiteko udalaren kirol instalazioak doan uztea erabaki zuen Ermuko Udalak. Pistaren erreserba guztien %8 San Pelayo ikastetxearen Gorputz Hezkuntzako saioei dagozkie, eta %3, Eskola Kiroleko jardueri.

Astelehenetik ostiralera programatutako erreserbetarako orduen %



Goiz eta arratsaldetako erreserben %



Kirol anitzeko pistaren erreserbak

- Talde espezifikoak
- Ikastetxeak
- Elkartek
- UKE eskaintza
- Eskola Kirola




Betiondo Kirol Gunea

Ongarai auzoa, z/g
48260, Ermua

Betiondo Kirol Gunea Ermuko iparraldean dago, Teodoro Zuazua Futbol Zelaiaren ondoan eta Zabaleta Erreka igarotzen den espazio naturalez inguratua.

9 kirol espazio eta 30 eremu osagarri dauzka, eta kirolari nahiz bisitari/ikusleentzat erabat irisgarria da ia, komun eta aldagela egokituak edukitzeaz gain.



KIROL ESPAZIOAK ETA OSAGARRIAK

KIROL ESPAZIOAK

- Luzera jauzia eta jauzi hirukoitza egiteko zuzen estalia (400m²)
- Altuera jauzia eta pertika jauzia egiteko eremu estalia (260 m²)
- Rokodromoa (80 m²-ko eskalada eremua)
- Muskulazio gela (117 m²)
- Atletismo pista (2.755 m²)
- Luzera jauzia eta jauzi hirukoitza egiteko zuzen estali gabea (250 m²)
- Altuera jauzia eta pertika jauzia egiteko eremu estali gabea (50 m²)
- Kirol anitzeko pista (1.058 m²)
- Futbol zelaia (6.000 m²)

OSAGARRIAK

Aldagelak: 1 -18.

Emakume desgaituentzako aldagela, gizon desgaituentzako aldagela.

Arbitroentzako aldagelak: 1 eta 2.

Gizonentzako komuna, emakumeentzako komuna eta desgaituentzako komuna.

Ikusle gizonentzako komuna, ikusle emakumeentzako komuna eta ikusle desgaituentzako komuna.

Harmailak: 1 eta 2.

Zerbitzu osagarriak

Mantentze zerbitzua:

biltegi orokorra eta mantentze lanetarako tailerra.

Mugikortasuna: aparkalekua.

Zerbitzu orokorrak:

sarrerako kontrola, bulegoak eta ekitaldietarako aretoa.

Betiondoko kirol anitzeko pistaren erabilera: banaketa

Betiondo Kirol Guneko kirol anitzeko pista da erreserba programatu gehien dituen. Ia egunero gainditzen du %80ko okupazioa, ostiraletan izan ezik (%73).


Goizetan arratsaldetan baino zertxobait txikiagoak badira ere, okupazio ehunekoak nahiko handiak dira bi ordu tartetan: goizetan, %64tik %91ra bitartekoak, eta arratsaldetan, %86tik %100era bitartekoak.

Miguel Ángel Blanco Udal Kiroldegiko kirol anitzeko pistaren kasuan bezala, Ermuko Udalak Betiondoko pista uzten die ikastetxeei, eskola orduetan Gorputz Hezkuntzako eskolak emateko. Hori islatuta dago erabilera ehunekoetan. Erabilera ehuneko handiena(%44) ikastetxeei dagokie, horiek baitira erabiltzaile ia bakarrak astelehenetik ostiralerako goizetan.



Kirol klubak erabilerarako erreserbak %38 dira, eta horiek arratsaldeaz garatzen dute beren jarduna.

Erreserben gainerako %18a Eskola Kirolari dagokio, eta hori goizetan nahiz arratsaldeko lehen orduetan eskaintzen da.

Astelehenetik ostiralerako programatutako erreserbetarako orduen %



Goiz eta arratsaldetako erreserben %



Betiondoko futbol zelaia- erabilera: banaketa


Betiondo Kirol Gune-ko futbol zelaia-
kasuan, erreserba programatu-
en kopurua %50 ingurukoa
da, batez beste, astelehenetik ostiralera.

Oso nabarmena da goizeko eta arratsaldeko
erreserben arteko aldea: goizetako gehieneko
erabilera %25ekoa da, eta arratsaldetako, aldiz,
%59tik %82ra bitartekoa.



Futbol zelaia erreserbatzen duten kolektibo-
ei erreparatuta, erreserben hiru laurden baino
gehiago, %78, hiru klubi dagozkie: Ermuko Ermua
Blues Club Deportivo eta C.D. Ermua taldeei eta
Eibarko S.D. Eibar klubari. Hirurek erabiltzen dute
arratsaldez.

Bestalde, Gorputz Hezkuntzako saioei eta Eskola
Kiroleko saioei dagozkie goizeko eta arratsaldeko
lehen orduetako erreserbak, %14 eta %8, hurrenez
hurren.

Astelehenetik ostiralera programatutako
erreserbetarako orduen %



Goiz eta arratsaldetako erreserben %





Teodoro Zuazua Futbol Zelaia

Ongarai auzoa, z/g 48260,
Ermua

Teodoro Zuazua Futbol Zelaia Betiondo Kirol Guneko instalazioen ondoan dago, Ermuko iparraldean.

2004az geroztik, C.D. Ermua taldeko kategoria guztiek erabiltzen dituzte zelaia eta bertako instalazioak beren kirol jarduerarako.

Instalazioak barne hartzen ditu belar artifizialeko futbol zelai bat, 2015ean berritua, eta 14 espazio osagarri. Komun eta aldagela egokituak dauzka, eta irisgarritasun mailak barnealdeko zein kanpoaldeko zirkulazioa ahalbidetzen die erabiltzaileei, baina kirolariei partzialki.

KIROL ESPAZIOAK ETA OSAGARRIAK

- **Futbol zelaia (6.784 m²)**

Kirol biltegia

Komunak: emakumeenak, gizonenak, emakume desgaituenak,
gizon desgaituenak.

Harmaila

Aldagelak: 1, 2, 3, 4, 5, 6.

Arbitroentzako aldagelak: 1 eta 2.

Zerbitzu osagarriak

Zerbitzu orokorrak: sarrerako kontrola, taberna, bulegoak eta ekitaldietarako aretoa.

Mantentze lanetako zerbitzua: biltegi orokorra.

Osasuna eta estetika: erizaindegia eta masajea.





Aritzmendi Pilotalekua

Mallabiko errep., z/g
48260 Ermua

Aritzmendi Pilotalekua Ermuko hego-mendebaldean dago. 4 kirol espazio eta 5 espazio osagarri dauzka. Bertako instalazioak partzialki erabilgarriak dira kirolarientzat eta bisitari/ikusleentzat, eta aldagela nahiz komun erabat egokituak ditu.

KIROL ESPAZIOAK ETA OSAGARRIAK


- **Kirol anitzeko pista frontoiduna (750 m²)**
Gizonentzako komuna, emakumeentzako komuna.
Aldagelak: emakumeak, gizonak
Harmaila
- **Erreboterako gela (100 m²)**
- **Tatami gela (100 m²)**
- **2 padel pista (m²)**

Zerbitzu osagarriak


Mantentze lanen zerbitzua: biltegi orokorra.
Zerbitzu orokorrak: sarrerako kontrola.

Pilotalekuko espazioen artean, tatami gela da erreserba programatuak dauzkana. Bi kirol klubek, CLUB JUDO SONKEI eta SENG-DO HO SIN SUL KIROLO KLUBA elkarrekin, gela horretan gauzatzen dute beren jarduna astelehenetik ostiralerako arratsaldeetan.

Astelehenetik ostiralera programatutako erreserbetarako orduen %



Udal Kiroldegitik oinez joateko behar den denbora



14.982 pertsonak 16 minutu baino gutxiago behar dituzte etxetik M.A. Blanco Udal Kiroldegira iristeko.

Ermuko biztanle kopurua, M.A. Blanco Udal Kiroldegira oinez joateko behar duten denboraren arabera



0 - 4
Min.

3.267 biz.



4 - 8
Min.

5.579 biz.



8 - 12
Min.

4.913 biz.



12 - 16
Min.

1.223 biz.

Biztanlea/denbora metatua



0 - 4
Min.

3.267 biz.



0 - 8
Min.

8.846 biz.



0 - 12
Min.

13.759 biz.



0 - 16
Min.

14.982 biz.

Betiondo Kirol Gunetik oinez joateko behar den denbora



Ermuko biztanle kopurua,
Betiondo Kirol Gunera oinez
joateko behar duten denboraren
arabera



0 - 4
Min.

552 biz.



4 - 8
Min.

4.304 biz.



8 - 12
Min.

7.148 biz.



12 - 16
Min.

1.955 biz.

Biztanlea/denbora metatua



0 - 4
Min.

552 biz.



0 - 8
Min.

4.856 biz.



0 - 12
Min.

12.004 biz.




0 - 16
Min.



13.959 biz.

13.959 pertsonak 16 minutu baino gutxiago
behar dituzte etxetik Betiondo Kirol Gunera
iristeko.

HIRIBILI ERMUA



MENDIKO BIDEAK



KIROLETAKO SARE SOZIALETAKO IBILBIDEAK




KORRIKA

JARDUERARAKO BI ARDATZ NAGUSI

- Mallabia – Ermua – Eibar ardatza
- Ermua – Aixola ardatza

ADINA


Ia denak helduak dira, inor ez 65 urtetik gorakoa. Kontuan hartu behar da horrelako teknologien eta sare sozialen erabilerak markatzen duen joera. Hori dela-eta, azterketa hau ikuspegi kualitatibo batetik egin behar da (nondik, zer ordutan, zer egunetan, etab.), eta ez hainbeste ikuspegi kuantitatibotik.






JARDUERA MAILAK HILABETEEN ARABERA

Uda ostean jarduerak gorakada nabarmena izaten du, eta nahiko egonkor mantentzen da hurrengo hilabeteetan.




JARDUERA MAILAK ASTEKO EGUNAREN ARABERA

Asteartea, asteazkena eta larunbata dira jarduer gehieneko egunak.




JARDUERA MAILAK EGUNEKO ORDUAREN ARABERA

Bi une nagusi daude: goizeko 8:00ak eta arratsaldeko 6:00ak.



GENERO DESBERDINTASUNAK


Genero desberdintasun handiak daude. Adibidez, kiroltarako sare sozial horien erabilera mailan.



Faktore askok izan dezakete eragina horretan:

- Alborapen estatistikoak, erabiltzaileak gutxi direlako. Kasu honetan, oso aktiboak diren gizon gutxi batzuek inpaktu handia dute.
- Emakumeek sare sozial hauek gutxiago erabiltzea, diskrezioagatik edo segurtasunagatik.
- Azterketa honen hasieran esan dugunez, ez diogu ikuspegi kuantitatibo batetik heldu behar ("emakume baino gizon gehiago"), eta emaitzen alderdi kualitatiboak erreparatu behar diegu.

KORRIKA



GIZONAK



Azterketa honek aukera ematen digu emakumeen eta gizonen ibilbideen artean desberdintasun handiak daudela ikusteko. Bada hiri guztietan errepikatzen den joera bat: ingurune urbanizatutik atera orduko, emakumeen aztarnak desagertzen hasten dira. **Hirien inguruneetan segurtasun txikiagoa sentitzen dute, eta horrek emakumeen kirol praktika oztopatzen du.** Egoera hori, hiri guztietan gertatzen dena, oso agerikoa da Ermuan, hiriak forma lineala duelako eta oso hurbil dagoelako hiriaren kanpoaldea. Korrika egiteko bideak berehala sartzen dira argiztapen gutxiagoko zonetan, eta horrek espazio sarea mugatzen du. Aztarnen azterketak partaidetza prozesuetan parte hartu duten emakumeek adierazitako balorazioak berresten ditu, baita haiek aipatutako ibilbideak ere.

KIROLETAKO SARE SOZIALETAKO IBILBIDEAK (STRAVA)




Bizikleta




Espero bezala, bizikletako ibilbideak luzeagoak dira, eta udal barruti osoa hartzen dute.

Ibilbide horien barruan sartzen dira mendiko bizikletentzako ibilbideak ere, eta, horrenbestez, modalitate hau praktikatzeko bide ugari daude.


Interesgarria da ikustea ibilbide horietan ia ez dagoela desberdintasunik emakumeen eta gizonen artean. Interesgarria izango da horren arrazoiak aztertzea. Baliteke ohikoagoa izatea bizikletan taldean ibiltzea edo, agian, emakumeak seguruago sentitzea bizikleta gainean.



GUZTIRA



EMAKUMEAK



GIZONAK

A black and white photograph of a skatepark. In the foreground, a large concrete bowl is covered in graffiti, including the words 'ACKO' and 'SADU'. A person is standing on the left side of the bowl, and another person is visible in the background. The skatepark is surrounded by dense trees and a cloudy sky.

04. KIROL PRAKTIKA ERMUAN

04. KIROL PRAKTIKA ERMUAN



04.1 Udal kirola

Ermuko Udaleko Kirol Alorra arduratzen da udalaren kirol eskaintza kudeatzeaz. 2020ko abendura arte, Udal Kirol Erakundea (UKE) izeneko tokiko organismo autonomoaren bitartez egin du lan hori.

Hau da Kirol Alorraren misioaren oinarria:

“Ermuko herritar guztien ongizate fisikoa, soziala eta emozionala areagotzea, kirola eta jarduera fisikoa egin dezaten sustatuz eta herritarren osasuna nahiz bizi kalitatea hobetuko duten ohitura osasungarriak sortuz”.

Udalaren aurrekontu orokorren barruan, “Kirola sustatu eta bultzatzea” izeneko programa ekonomikoa dago lotuta Kirol Alorrarekin.

Kirol Alorraren aurrekontua 2020rako azken ekitaldietako handiena da, 114.003,69 € handituta 2019tik eta 2018tik, eta zertxobait gehiago, 2017tik.

Kirol Alorraren aurrekontua



04.1.1 Udal Kirol Erakundea (UKE)

Erakundearen misioa da Ermuko herritarren artean bizi ohitura osasungarriak sustatzea baldintza berdinetan, eta horretarako jarduera fisikoa eta kirola bultzatzea, osasuna, bizi kalitatea eta komunitatearen garapen soziala mesedetzeko mekanismo gisa.

Ermuko UKEk erakunde sozialki arduratsu gisa erreferente izan nahi du EAEn, osasunaren, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloetan:

- Emandako zerbitzuaren kalitateagatik.
- Zerbitzuen eskaintzaren eta herritarren beharren arteko egokitasunagatik.
- Bezero eta pertsonen gogobetetasun mailagatik.
- Kudeaketa garden, arin eta berritzailearengatik.

Lau dira Ermuko UKEko lan talde osoak bere eguneroko zereginetan partekatzen dituen printzipioak eta balioak:

1. Errespetua, duintasuna eta ohore eskubidea
2. Gizarte erantzukizuna
3. Erabiltzaileentzako zerbitzua
4. Konpromisoa

Enpresa eta zerbitzu azpikontratatuak


Bai jarduerak kudeatzeko, bai instalazioak garbitzeko, UKEk hiru enpresaren zerbitzuak azpikontratatu ditu.*

- BPXPORT XXI, S.L.U. Kirol zentroetako kirol zerbitzuak eman eta garatzeko kontratua.
- AITEKO MANAGEMENT, S.L. Uretako jarduerak eta salbamendu nahiz sorospeneko jarduerak antolatu eta gauatzeko zerbitzuaren kontratua.

- ZAINZEN, S.A. Ermuko Udal Kirol Erakundearen kirol instalazioak garbitzeko zerbitzu kontratua, enpresari esleitua.

** Zerbitzu kontratuak eten egin ziren, osasun krisiak eragindako alarma egoera ezarri zenean.*

UKEn organigrama



UKEn helburuak eta ekintza plana 2020rako

1. helburua

Abonatuen kopurua eta kirol instalazioen erabilera sendotzea, eta ikastarogileen kopurua handitzea, udalaren kirol instalazioetako zerbitzuak, espazioak eta ekipamenduak hobetuz, eta erabiltzaileen gogobetetzea areagotuz.

Proiektuak/Zerbitzuak

- P1.1 Ikastaroetako asistentziaren kontrola web eragile bidez digitalizatzeko proiektua
- P1.2 Kirol ikastaroen eskaintza zerbitzua
- P1.3 Instalazioak alokatzeko zerbitzua
- P1.4 Lankidetzaren hitzarmenak eguneratzeko eta zabaltzeko proiektuak
- P1.5 UKEn estatutuak legedi berrira egokitzeko proiektua

Adierazleak

1. Abonatu kopurua mantentzea (5.000)
2. Ikastarogileen kopurua handitzea (1.100 hilean)
3. Zerbitzuekiko gogobetetze maila (>7)
4. Instalazioekiko gogobetetze maila (>7)

2. helburua

Zuzenean edo tokiko kirol elkarte eta erakundeekin bitartez jardura fisikoa eta kirolaren praktika biztanle sektore guztietan sustatzea, bereziki zainduta gazteak, desgaitasunen bat duten pertsonak, emakumeak eta adinekoak. Kirol egitura federatuen garapena eta sendotzea babestea; udalerririk kirol ekitaldiak antolatzen laguntzea, eta kirolariek lehiaketa garrantzitsuetan parte har dezaten mesedetzea.

Proiektuak/Zerbitzuak

- P1.1 Lehiatzeko konkurrentzia bidezko dirulaguntzak kudeatzea.
- P1.2 Lankidetzaren hitzarmen bidezko dirulaguntzak kudeatzea.
- P1.3 Kirol ekitaldi bereziak antolatzea.

Adierazleak


- Dirulaguntza jasotzen duten kirolarien kopurua mantentzea (1.000)
- Lehiaketa federatuetan izena emana duten kirolarien kopurua mantentzea (600)
- Eskola lehiaketetan izena emana duten kirolarien kopurua mantentzea (300)
- Emakumeen lizentzia federatuen kopurua mantentzea (100)

04.1.1.1 UKEren aurrekontua

Udal Kirol Erakundeak **1.821.946,90 €-ko gastu-aurrekontua** du 2020ko ekitaldirako (biztanleko 113,7 €, batez beste); kopuru hori aurreko ekitaldikoa baino %5,6 handiagoa da.

Ondorio horietarako, eragiketa korronteen gastuei dagokie %99,61, eta gainerako %0,39a, aldiz, kapital eragiketei.


UKEren aurrekontua 2017-2020 aldirako



• Sarrerak

Udalaren ekarpena gastu korronterako %8,6 hazi da 2019arekin alderatuta, eta **1.035.957,05 €-koa da 2020an.**

Udalaren ekarpen ekonomikoa eta sarrera propioak




2020an, UKEren autofinantzaketa maila ia bi puntu txikitu da (%43,1) 2019arekiko; hortaz, aldatu egin da azken ekitaldietako goranzko joera.

UKEren autofinantzaketa ehunekoa

2017	2018	2019	2020
%44,3	%45,0	%44,9	%43,2


Sarreraren aurrekontuaren bilakaera, kapituluka.

V. kap.



UKEn 2020ko sarreraren aurrekontua 3. eta 4. kapituluek osatzen dute, ia osorik; kopuru osoaren %42,48 3. kapituluari dagokio, %56,86 4. kapituluari eta %0,66 bakarrik 5. eta 8. kapituluei.

2020ko sarreraren aurrekontuaren %, kapituluaren arabera




● 3. kap. ● 4. kap. ● 5., 7. eta 8. kap.


III. kap.




VII. kap.



IV. kap.




VIII. kap.



**Bi grafikoetan sartuta daude 2020an lortutako datuak, informazio gisa.*


Ikastaroengatiko

sarrerak 2015etik 2019ra bitarteko aldira, ikastaroen bidezko diru sarrerak txikitu egin ziren, 2016an maximora heldu ostean.



Abonuengatiko sarrerak

Abonuen bidezko diru sarrerak, aldiz, handitu egin ziren 2015-2019 aldira, eta horrek konpentsatu zuen, neurri handi batean, ikastaroengatiko sarreraren beherakada.



• Gastuak


UKEn gastuen aurrekontua handitu egin da 2020an, aurreko urteekin alderatuta, nagusiki 2. kapituluak (ondasun korronteak eta zerbitzuak) sortutako gastuengatik, gastu guztien %75 baitira.

Langileen gastua ere (1. kap.) handitu egin da 2020ko ekitaldian, eta aurrekontu osoaren %24,5 dagokio, 2019an baino %7,5 gehiago.

Gastu finantzarioak (3. kap.) txikitu egin dira aurreko urteetatik, eta inbertsioei dagozkienak (6. kap.) desagertu egin dira.





Bestalde, finantza aktiboak (8. kap.) azken urteetako mailetan mantendu dira.

2020ko gastu aurrekontuaren %, kapituluaren arabera



UKEn gastu aurrekontua 2020an 1. eta 2. kapituluei dagokie ia osorik (%95,5), eta horien atzetik, oso urrutira, sortutako gastuaren %0,4 3. eta 8. kapituluei dagokie.

Gastuen aurrekontuaren bilakaera, kapituluka.



04.1.1.2 Dirulaguntzak

Ermuko Udalak, dirulaguntzen bidez tokiko kirola babestu, sustatu eta garatzeko politikak egiteko asmoz, urtero egiten ditu tokiko kirol klub eta taldeei laguntzak emateko deialdiak, hiru multzotan bereizita:

A

Kirol egiturak garatzea eta sendotzea

Ermuko kirol klub eta taldeentzako laguntza ekonomiko zuzenak ematea, beren egiturak garatu eta sendotu ditzaten.

B

Kirol ekitaldiak antolatzea

Kirolariei, elkarteei eta kirol erakundeei laguntza ekonomikoak ematea, Ermuko udal barrutian egingo diren kirol ekitaldi garrantzitsuak antolatu ditzaten.

C


Aparteko lehiaketetara joatea

Kirolariei, elkarteei eta kirol erakundeei laguntza ekonomikoak ematea, Euskaditik kanpo egiten diren kirol ekitaldi federatueta (nazionalak, Europakoak eta nazioartekoak) parte har dezaten.

Dirulaguntzetara bideratutako aurrekontu partidak nabarmen egin du behera 2020an, aurreko urteekin alderatuta. Covid-19aren ondoriozko osasun krisiak jarduerak nahitaez etetea ekarri izanak azalduko luke egoera hori.

Kirol egiturak garatu eta sendotzeko laguntza lerroa da urtez urte zuzkidura handiena jasotzen duena, eta aparteko joan-etorriena, aldiz, zuzkidura txikiena jasotzen duena.

Dirulaguntzen alderaketa eta banaketa




“Kirol egiturak garatu eta sendotzea” laguntzen baremazio irizpideen azterketa

1. BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAZIO BAREMOA

Lizentzia mota	Haurrak, kadeteak edo egokitua	Puntuak 2
	Gazteak	1,5
	Seniorrak, absolutua, beteranoak edo erretiratuak	0,5
	Emakumeak	0,5
Lehia eremua	Lurraldeko lehiaketak	Puntuak 0,5
	Eremu autonomikoko lehiaketak	1
	Estatuko lehiaketak	2,5
Entrenatzaile lizentziak	Oinarrizko entrenatzailea (begiralea)	Puntuak 1,5
	I. mailako entrenatzailea (erregionala)	2,5
	II. mailako entrenatzailea (nazionala)	5
Kirol atalak	Bakoitzagatik	Puntuak 5
	Atal mistoa	5
Joan-etorriak	EAE	Puntuak 0,5
	Espainia	1
	Balear Uharteak, Ceuta, Melilla	2
	Kanariar Uharteak eta nazioartekoak	3
Kirol Zinegotzigoaren ekimenetan laguntzea	Kirola sustatzeko programak	Puntuak 5
	Kirolean parte hartzeko programak	5
	Kirol teknikariak prestatzeko programak	7,5
Lankidetzak ikastetxeekin	Hitzartutako kirol modalitatea	Puntuak 5
	Kirol Formakuntzako Eskoletan partaidetza	1
	Emakumezkoen partaidetza	0,5
	Kirol Eskolen Taldeak	20
	Egitura osoa	25
Kirol autoktonoa	Kirol autoktonoa	Puntuak 25

Emandako puntuak, irizpidearen eta urtearen arabera (A laguntza lerroa)

■ 2020 ■ 2019 ■ 2018 ■ 2017



Laguntza gehienak kirol jardueretarako joan-etorrien gastuak ordaintzeko erabiltzen dira.

Lizentzia mota eta kopurua eta ikastetxeekiko lankidetza dira laguntza gehien jasotzen dituzten beste bi irizpideak.

Kirol erakundeek Kirol Zinegotzigoak proposatutako ekimenetan laguntzea irizpidea txikituz doa urtetik urtera.

Bestalde, erakunde eskatzaileetako ezeinek ez du betetzen “kirol autoktonoa” irizpidea.


“Kirol ekitaldiak antolatzea” baremazio irizpidearen azterketa

BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAZIO BAREMOA

INTERES SOZIALA		
Jardueraren iraupena	1 egun	Puntuak 3
	2 egun edo gehiago	6
Oihartzuna hedabideetan	Oihartzuna	Puntuak 5
Ekitaldiaren jarraitutasuna eta egonkortasuna	3-7 edizio	Puntuak 1,5
	9-12 edizio	3
	13 edizio edo gehiago	6
Kolektiboentzako jarduerak	Kolektiboak	Puntuak 3
Antzekorik ez egotea	Kolektiboak	Puntuak 5
Federazioen eta erakundeen babesa	Kolektiboak	Puntuak 5
Bi jarduerak osatutako programa	Kolektiboak	Puntuak 3

KIROL INTERESA		
Taldeko kirolak		Puntuak
	Selekzio nazionala edo profesionalak	7,5
	Selekzio autonomikoak	5
	Profesionalak ez diren goi kategoriako taldeak	2,5
Bakarkako kirolak		Puntuak
	Espainiako errekorhunak	7,5
	Euskadiko errekorhunak	5
	Bizkaiko errekorhunak	2,5
Federazioak aitortutako proba		Puntuak
	Nazioarteko zirkuitua	12,5
	Espainiako txapelketa	10
	Euskadiko txapelketa	5
	Bizkaiko txapelketa	2,5
Kirol autoktonoa edo erregionala		Puntuak
	Kirol autoktonoa edo erregionala	3

Emandako puntuak, irizpidearen eta urtearen arabera (B laguntza lerroa)



Ekitaldiak antolatzen laguntzen balorazio irizpideen artean, interes sozialekoak bereziki garrantzitsuak dira, kirol interesekoekin alderatuta.

2020 aurreko urteak erreferentziatzat hartuta, ekitaldien jarraitutasuna eta izaera berdingabea dira puntu gehien jasotzen dituzten irizpideak, eta horien atzetik daude beste hauek: iraupena, federazioen babesa eta hedabideetako oihartzuna.

Kirol interesari lotutako irizpideen puntuazioek erakusten dute ekitaldiak bakarkako kiroletarako antolatzen direla eta ez direla federazioek aitortutako probak.

04.1.2 Kirol zerbitzuak

UKEk honako kirol zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

04.1.2.1 Abonuak

Ermuko herritarrak Udal Kirol Erakundean abonatu daitezke, hainbat modalitatetan, eta, era horretara, abonatu gabeko erabiltzaileek ez dauzkaten onura eta erraztasun batzuk dituzte.

Kirol praktikaren benetako eskuragarritasuna bermatzeko, UKEk abonatu txartelaren %50 ordaintzen die ekonomikoki egoera zaurgarrienean dauden pertsonei.

Urteko kirol abonuen tipologia eta tarifa

URTEKO ABONUA		IZEN EMATEAK Maiatzetik aurrera: %25eko behe. Irailetik aurrera: %60ko behe.	
FAMILIA		198,20 €	
Barne hartzen ditu ezkontidea edo bikotekidea eta, hala badagokio, 24 urtera arteko seme-alabak (24 urte betetzen dituzten urtearen abenduaren 31ra arte). Seme-alabek ez dute adin mugarik izango, %65eko minusbaliotasuna edo handiagoa badute eta bizikidetzat unitatean sartuta badaude.			
HELDUA		124,55 €	
19 urte betetzen dituzten urtearen urtarrilaren 1etik aurrera.			
GAZTEA		73,80 €	
18 urte betetzen dituzten urtearen abenduaren 31ra arte.			
*ABONU HOBARIDUNA			
Onuradunek bete beharreko baldintzak: Urteko abonuari dagokion tasa ordaindu behar dute aldez aurretik. Ermuan erroldatuta egon behar dute. Udal tasen edo zergen ordainketan egunean egon behar dute. Baremoan jasotako gehienezko baliabide ekonomikoak eduki behar dituzte.			

ONURAK

Doako erabilera: spa gunea, igerileku klimatizatua, M. A. Blanco Kiroldegiko oinarritzko gimnasioa (16 urtetik gora), Betiondo Kirol Guneko oinarritzko gimnasioa (16 urtetik gorako kirolari federatuak), Beetiondo Kirol Guneko rokodromoa-boulderra, pilotalekua eta squash pista (lanegunetan goizez), sauna eta lurrin bainua.

ERRAZTASUNAK

Lehentasuna erreserbetan, zazpi egun eta ordu erdiko aurrerapenarekin.
Jardueretan izena emateko lehentasuna.
Murrizketak eta deskontuak ikastaroen eta jardueren kuotetan.
Telefono bidezko erreserbak.
Hileroko ordu finkoen erreserba instalazioetan.

2019ra arte erregistratutako datuak kontuan hartuta, UKEko abonatu kopurua handitu egin da 2015az geroztik, eta azken urteetan egonkor mantendu da kopuru handiena, 5.200 abonatu ingurukoa.


2020an 338 abonatu galdu bazituen ere, datuek 2015ean lortutako mailetan eusten diote.

Abonatuen %55 gizonak dira, eta %45 emakumeak; joera hori mantendu egin da urteetan zehar.


Tipologiari erreparatuta, abonuen %67 familia abonatuak dira, eta abonuen titular bakoitzeko 2,4 pertsona onuradun daude, batez beste. Abonu indibidualak abonuztuen %22,9 dira, eta gazteen abonatuak, %9,8.

2019ra arte gazteen abonatu indibiduala zen gehien handitu zena, baina 2020an beheraka handiena izan duenetako bat da, Eskola Kiroleko jarduerak izan baitira osasun murrizketa gehien jasan behar izan dituztenak.


Urteko kirol abonatu kopuruaren bilakaera



Abonatuen %



Abonu kopuruaren bilakaera tipologiara



04.1.2.2 Kirol ikastaroak eta jarduerak

UKEk kirol jarduerekin lotutako lau programa dauzka abian: haurrentzakoak, 16 urtetik gorakoentzakoak, hitzartutako kirol jarduerak eta kirol kanpainak.

A) HAURRENTZAKO KIROL JARDUERAK.

Eskola orduetatik kanpo egiten diren kirol jarduerak dira, eta helburu nagusitzat dute 16 urtera arteko pertsonen kirol formakuntza integrala.

B) HELDUENTZAKO KIROL JARDUERAK.

16 urtetik gorako pertsonentzako kirol jarduerak dira, eta helburu nagusitzat dute aisialdirako denboran kalitatezko kirol formakuntza profesionala eskaintzea.

HAURRENTZAKO IKASTAROAK

ARETOA

Roller Skate

Padela

Dance

Erritmikoa

IGERILEKUA

Igeriketa

HELDUENTZAKO IKASTAROAK

ARETOA

Adinekoentzako jarduera fisikoa (hitzartua)

Aerobic

Dantzak

Body Power

Indoor zikloa

Express zirkuitua

Cross Cardio

Fitness

Gapc

Hipopresiboak

Latin Dance

Pilates

Roller Skate

Stretching

Total Core

Yoga

Zumba

IGERILEKUA

Aquagym

Aquatic

Igeriketa

TARIFAK

Kirol jarduerak eta ikastaroak egin ahal izateko, erabiltzaileek hiru tarifa modalitate dauzkate:

• OINARRIZKO

Kontratutako ordu finko batean jardura hauetako bat praktikatzeko aukera ematen du: fitness, aerobic, mantentze gimnasia, dantzak, lerroko patinajea, body power, igeriketa zuzendua, aquagym eta kupo zabala eta kirol helburuei begirako antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk.

• PLUS TARIFA

Kontratutako ordu finko batean jardura hauetako bat praktikatzeko aukera ematen du: pilates, indoor ziklismoa, stretching eta kupo mugatua eta kirol helburuei begirako antzeko ezaugarriak dituzten beste jardura batzuk edo/eta bakarkako kirol makinak darabiltzatenak.

• PREMIUM TARIFA

16 urtetik gorakoentzat, instalazioa irekita dagoen bitartean FITNESS aretora sartzeko aukera ematen du, baita OINARRIZKO tarifyan eta PLUS tarifyan jasota dagoen beste edozein jardura egitekoa ere, egunean 2 saio gehienez, nahi den egunean eta orduan, baldin eta egunean bertan aurrez aurre edo telefonoz erreserbatzen badu plaza.

Premium jardueren hileko taulako jardura guztiak hileko tarifa finko baten truke, egun edo ordutegi mugarik gabe.


Ikastarogileen %21,4k Premium tarifa ordaintzen dute 2020an. Datu hori mantendu egin da 2017tik.

2020an, Premium tarifa duten emakumeen ehunekoa (%63,2) gizonena (%36,8) baino handiagoa da.

2020an, Premium tarifa duten erabiltzaileen %63,2 emakumeak dira.



Premium tarifyn kopuruaren bilakaera



2020ko tasen taula


ACTIVIDADES FÍSICO DEPORTIVAS Y ACUÁTICAS

		MÁXIMO 3 SESIÓN/DÍA				
TARIFA PREMIUM	ABONADOS/AS	43,15				
FITNESS + CURSOS TARIFA BÁSICA + CURSOS TARIFA PLUS	NO ABONADOS/AS	66,95				
		30 MIN./SEM.	1 SESIÓN/SEM.	1,5 SESIÓN/SEM.	2 SESIÓN/SEM.	3 SESIÓN/SEM.
TARIFA PLUS	ABONADOS/AS 1 ACTIVIDAD	10,00	16,00	24,65	29,65	39,30
PILATES, STRETCHING, CICLO INDOOR, DEFENSA PERSONAL, HIPOPRESIVE, ETC.	ABONADOS/AS 2 o MÁS ACTIVIDADES		20% DTO.	20% DTO.	20% DTO.	20% DTO.
	NO ABONADOS/AS	15,60	24,75	38,25	45,90	61,80
		30 MIN./SEM.	1 SESIÓN/SEM.	1,5 SESIÓN/SEM.	2 SESIÓN/SEM.	3 SESIÓN/SEM.
TARIFA BÁSICA	ABONADOS/AS 1 ACTIVIDAD	9,05	13,70	22,00	26,25	34,70
AERÓBIC, BODY POWER, CROSS TRAIN, MUSIC & DANCE, ZOOMBA, PATINAJE, JAZZ FUSION, AQUAGYM, BAILES, ETC.	ABONADOS/AS 2 o MÁS ACTIVIDADES		20% DTO.	20% DTO.	20% DTO.	20% DTO.
	NO ABONADOS/AS	14,00	21,25	34,10	40,65	53,80
		USO LIBRE EN HORARIO APERTURA				
SOLO FITNESS	ABONADOS/AS	34,70				
+ 16 ÑOS	NO ABONADOS/AS	53,80				
		1 SESIÓN/SEM.		2 SESIÓN/SEM.		
CURSOS DE PÁDEL	ABONADOS/AS	23,35		41,45		
>INICIACIÓN + 14 AÑOS >PERFECCIONAMIENTO + 14 AÑOS	NO ABONADOS/AS	29,05		53,90		
		1 SESIÓN/SEM.		2 SESIÓN/SEM.		
CURSOS DE PÁDEL	ABONADOS/AS	19,20		33,20		
>INICIACIÓN HASTA 14 AÑOS >PERFECCIONAMIENTO HASTA 14 AÑOS	NO ABONADOS/AS	29,05		53,90		

CURSOS DE NATACIÓN

		1 SESIÓN/SEM.	
NATACIÓN BEBÉS	ABONADOS/AS	26,25	
>DE 6 A 18 MESES >DE 18 A 36 MESES	NO ABONADOS/AS	40,65	
		1 SESIÓN/SEM.	
NATACIÓN 2 AÑOS	ABONADOS/AS	26,25	
ADAPTACIÓN AL MEDIO ACUÁTICO	NO ABONADOS/AS	40,65	
		1 SESIÓN/SEM.	2 SESIÓN/SEM.
NATACIÓN 3 AÑOS	ABONADOS/AS	22,50	43,15
NIVEL 0	ABONADOS/AS 2 o MÁS ACTIVIDADES	20% DTO.	20% DTO.
	NO ABONADOS/AS	34,80	66,95
		1 SESIÓN/SEM.	2 SESIÓN/SEM.
NATACIÓN 4 A 14 AÑOS	ABONADOS/AS	13,70	26,25
NIVELES DEL 1 AL 5	ABONADOS/AS 2 o MÁS ACTIVIDADES	20% DTO.	20% DTO.
	NO ABONADOS/AS	21,25	40,65
		2 SESIÓN/SEM.	
NATACIÓN PERSONAS ADULTAS	ABONADOS/AS	26,25	
INICIACIÓN + 14 AÑOS	ABONADOS/AS 2 o MÁS ACTIVIDADES	20% DTO.	
PERFECCIONAMIENTO + 14 AÑOS	NO ABONADOS/AS	40,65	

Hilean eskaintako ikastaroak




2019ra arte, hileko ikastaroen eskaintza egonkor mantentzen da urtearen zati handienera, urritik ekainera bitarte, eta nabarmenki murrizten da udako hiletan. Abuztuaren ez da ikastarorik eskaintzen.

2020a ikastaro eskaintza zabalenarekin hasi bazen ere, gero beherakada nabarmena izan zen,


ordutegietan eta mugikortasunean ezarritako neurri murriztaileen ondorioz.

Udako hiletan aurreko urteetako kopuruetara iritsi bazen ere, urteko azken hiruhilekoa egonkortu egin zen, hileko 85 ikastarorekin, batez beste, eta kopuru hori 2019ko datuetatik oso urruti dago.

Ikastaroetako izen emateak



Ikastaroetako izen emateen %, generoaren arabera (2020)



Ikastaroetako izen emateen kopuruak dinamika bera izan du 2019ra arte: egonkor mantendu da udazkeneko, neguko eta udaberriko hiletan, eta behera egin du udakoetan.

2020ko lerroak ordutegian eta mugikortasunean izandako mugek markatutako egoerak erakusten ditu.


Generoari erreparatuta, hileko izen emateen ehuneko handiena emakumeei dagokie; horienak dira izen emateen ia %60, eta gainerako %40a, berriz, gizonenak.

UKEk eskaintzen dituen ikastaroetako batzuk euskaraz izaten dira; kopuru hori %38tik %48ra bitartekoa izaten da neguko hiletan, eta txikiagoa, aldiz, udakoetan. Grafikoan ikusten denez, horiek gutxituz doaz urtetik urtera. Salbuespen gisa, 2018ko uztailean ikastaro gehiago eman ziren euskaraz gaztelaniaz baino, %60 eta %40, hurrenez hurren.


2020an betetako plazei dagokienez, lehenengo hiruhilekoan goranzko joera zegoen, aurreko urteekin alderatuta, hauek izanik batezbestekoak: 302, 2019an; 320, 2018an, eta 298, 2017an.

2020an, euskaraz eskainitako ikastaroen erabiltzaileen %52,1 emakumeak dira.

Euskaraz ematen diren hileroko ikastaroak (%)



Euskaraz ematen diren hileroko ikastaroetan betetako plazak




Ikastaro mota ugariena aretoan eskaintzen direnena da; horrelakoen kopurua handitu egin zen aurreko urteekin alderatuta, eta 80 izatera iritsi ziren 2020ko lehen hiruhilekoan. Dena den, grafikoak erakusten du ikastaro horiek goranzko joera izan dutela urtez urte.

Okupazio datuak ere altuenak dira 2020an: martxoan 934 zeuden plaza okupatu.


Urtearen bigarren erdian %50 inguruko beherakada izan zen plaza okupatuetan, aurreko urteekin alderatuta.

2020an, emandako aretoetan ikastaroen erabiltzaileen %54,7 emakumeak dira.

Aretoko hileroko ikastaroen kopurua.



Aretoko hileroko ikastaroetan beteta dauden bakarkako plazak.




Igerilekuan eskaintzen diren ikastaroak izan dira pandemiaren ondorioak nabarmenen pairatu dituztenak. Lehen, 2020ko martxora bitarte, 30 ikastaro inguru izaten ziren hilean, udan izan ezik, garai horretan nabarmen murrizten baitziren.


Okupazio daturik altuenak, 290 plaza okupatu, 2019ko azken hiru hiletan erregistratu ziren; datu horiek eta 2020ko lehen hiruhilekokoek goranzko joera adierazten zuten igerilekuko ikastaroen okupazioan.

2020an, igerilekuko ikastaroen erabiltzaileen %45,8 emakumeak dira.

Igerilekuko hileko ikastaroak



Igerilekuko hileko ikastaroetan beteta dauden plazak



C) HITZARTUTAKO KIROL JARDUERAK

Ezaugarri sozialengatik eta osasun ezaugarriengatik interes berezia duten biztanleria taldeentzako kirol jarduerak dira, eta helburutzat dute alderdi fisikoak, motrizitatekoak, sozialak, afektiboak eta osasunekoak hobetzea eta mantentzea.

Lankidetzeta hitzarmenen bidez hilero eskaintzen diren ikastaroak

2019ko urriaren 1etik 2020ko ekainaren 30era garatutako hitzarmenak.


- ERAKUNDEA: Ermuko Erretiratuen Etxea.
 - JARDUERA: Adinekoentzako jarduera fisikoa.
 - TALDE KOPURUA: 3
- ERAKUNDEA: Gorabide.
 - JARDUERA: Jarduera fisiko egokitua.
 - TALDE KOPURUA: 1
- ERAKUNDEA: Anaitasuna Ikastolako Gurasoen Elkarte.
 - JARDUERA: Multikirola.
 - TALDE KOPURUA: 2
- ERAKUNDEA: San Pelayo Ikastetxeko Gurasoen Elkarte.
 - JARDUERA: Multikirola.
 - TALDE KOPURUA: 1
- ERAKUNDEA: San Pelayo Ikastetxeko Gurasoen Elkarte.
 - JARDUERA: Psikomotrizitatea.
 - TALDE KOPURUA: 1

- ERAKUNDEA: Ermua-Zaldibar Eguneko Ospitalea.
 - JARDUERA: Igeriketa egokitua.
 - TALDE KOPURUA: 1
- ERAKUNDEA: Ermua-Zaldibar Eguneko Ospitalea.
 - JARDUERA: Era askotako jarduerak.
 - TALDE KOPURUA: 1

2020ko urriaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra garatutako hitzarmenak.

- ERAKUNDEA: Ermuko Erretiratuen Etxea.
 - JARDUERA: Adinekoentzako jarduera fisikoa.
 - TALDE KOPURUA: 3
- ERAKUNDEA: Gorabide.
 - JARDUERA: Jarduera fisiko egokitua.
 - TALDE KOPURUA: Aldi baterako etenda.
- ERAKUNDEA: Anaitasuna Ikastolako Gurasoen Elkarte.
 - JARDUERA: Multikirola.
 - TALDE KOPURUA: 2
- ERAKUNDEA: Ermua-Zaldibar Eguneko Ospitalea.
 - JARDUERA: Igeriketa egokitua.
 - TALDE KOPURUA: Aldi baterako etenda.
- ERAKUNDEA: Ermua-Zaldibar Eguneko Ospitalea.
 - JARDUERA: Era askotako jarduerak.
 - TALDE KOPURUA: Aldi baterako etenda.

Hitzartutako jardueretan beteta dauden plazak.



2020an, hitzartutako ikastaroen erabiltzaileen %48,4 emakumeak dira.



Hitzartutako ikastaroetan edo/eta jardueretan parte hartzen duten erabiltzaileen kopurua 2019ko azken hiruhilekoan iritsi zen maximora, 206ko batezbestekoarekin; eta 2020an goranzko joera mantendu zen, osasun alertaren ondorioz jarduerak nahitaez bertan behera utzi behar izan ziren arte.

2020ko urrian berriro jarduerari heldu ostean lortutako datuek jarduera batzuk aldi baterako eten behar izanaren ondorioak islatzen dituzte.

D) KIROL KANPAINAK

Udan edo oporraldietan dibertimenduzko kirol jarduerak garatzeko kanpainak dira.

Kirolaz Blai Uda – Mójate de Deporte



04.1.2.3 Otros



Jarduera Fisikorako eta Kirolerako Orientazio Zerbitzua
Servicio de Orientación para la Actividad Física y el Deporte



Ermua Mugi! tokiko estrategia komunitario bat da, Ermuko Udalak 2012az geroztik sustatzen duena, herritarrek bizi estilo aktibo eta osasungarriak har ditzaten, modu eraginkor eta jasangarrian.

Barne hartzen du doako zerbitzu pertsonalizatu bat, honako hauek eskaintzen dituen: informazioa, aholkularitza, monitorizazioa eta jarduera fisikoa erregulariki praktikatzeko nahiz elikadura ohitura osasungarriak barneratzeko formakuntza, baita bizi estiloak aldatzeko trebakuntza motibazionala eta emozionala ere. Zerbitzu horrek Lehen Arretako Tokiko Zentro Medikotik eta Udalaren Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak artatzen ditu nagusiki.

Estrategia hori garatzeko elkarrekin lan egiten dute Osakidetzako Tokiko Osasun Zentroak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritzak, Debabarrena Erakunde Sanitario Integratuak, Ermuko Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Ermuko Udal Kirol Erakundeak; jarduera fisikoa, elikadura eta sukaldaritza osasungarria eta ongizate psikologikoa aginduta, Orientazio Zerbitzura bideratzen dituzte mediku, laguntza eta kirol zerbitzuetara joaten diren pertsonak.

Zerbitzuko taldea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako, Giza Nutrizio eta Dietetikako eta Psikologiako tituluak dauzkaten profesionalek osatzen dute. Zerbitzua Ermuko 3 urtetik gorako bizilagun guztientzat dago zabalik.

Hauxe eskaintzen du:

- Udalerriko jarduera fisikoko aukera eta programa ugariei buruzko informazio, aholkularitza eta orientazio indibidualizatua, erabiltzailearen kirol praktika bere aurreikuspen, lehentasun eta premietara egokituta.
- Jarduera fisikoko eta orientazio nutrizionaleko programa pertsonalizatuak.
- Kirol praktikaren jarraipena, kontrola eta ebaluazioa.
- Osasunaren hobekuntza integrala, jarduera fisikoa eginez.
- Jarduera fisiko osasungarriari buruzko edukietan formakuntza eta orientazioa.

ERMUA MUGI PROGRAMAK



Egoera fisikoa garatzeko programak:


- Patologiak prebenitzeko jarraibideak.
- Saihestu beharreko jokamoldeak eta ohiturak.
- Sustatu beharreko kirol jarduerak eta ariketa fisikoak.
- Ingurune hurbilean benetan eta sistematikoki praktikatzeko aukerak.
- Ibilbide Osasungarri Adimendunen Sarea eta HIRIBILI eskumuturrekoa.

Elikadura ohituren programa:

- Elikadura eta sukaldaritza osasungarria.
- Produktu osasungarriak erostea.
- Eguneko eta asteko menuak antolatzea.
- Elikagaien etiketak interpretatzea.
- Estresaren aurkako elikadura.

Ongizate emozionaleko programa:

- Ongizate psikologikoa eta emozionala.
- Gogo aldartea indartzeko jarraibideak eta estrategiak.
- Ohitura eta jokamolde ez-osasungarrien prebentzioa.




04.2 Kirol klubak

Eusko Jaurlaritzaren kirol erakundeen erregistroan helbidea Ermuan duten 30 kirol klub daude errolatuta, baina gaur egun denak ez daude martxan.

2020an, Ermuan 17 klub edo/eta elkarte daude aktibo, eta 13 kirol modalitate egiten dituzte, bai indibidualak, bai taldekoak.

	Kluba/Kirol elkarte	Modalitatea
1	C.At.Castilla-León Ermua	Atletismoa
2	Club Deportivo Ermuko Errotabarri Eskubaloia	Eskubaloia
3	Club Deportivo de Bolos Montañés de Ermua	Boloak
4	A. D. Judo Krav-ka de Ermua	Boxeo
5	Ermuko Txirrindulari Elkarte	Ziklismoa
6	C.D. Ermua	Futbola
7	Club Deportivo Scorpio	Futbola
8	Ermua Blues Club Deportivo	Futbola
9	Club Judo Sonkei	Judoa
10	C.D. Jator Karate Ermua	Karatea
11	G.M. Artarrai M.T.	Mendia
12	Club de Pádel el Sartenazo de Ermua	Padela
13	Seng Do-ho Sin Sul Kirol Kluba	Taekwondoa
14	C.D. de Arco Betiende de Ermua	Arku tiroa
15	Ermuko Ostots Triatloi Kirol Kluba	Triatloia

Kirol modalitateak



Eskubaloia, futbola, ziklismoa, padela, arku tiroa, atletismoa, judoa, karatea, taekwondoa, boxeoa, mendia, triatloia eta boloak.

2020an martxan dauden klub gehienek Ermuko Udalaren dirulaguntza jasotzen dute; salbuespenak dira taekwondoko, boxeoko eta padeleko klubak, ez baitute laguntzarik eskatu.

Udalak lankidetzaz hitzarmenak dauzka C.D. Ermuko Errotabarri Eskubaloia Kirol Elkartearekin eta C.D. Ermua futbol elkartearekin.

Eskuineko taulan aipatuta dauden kirol erakunde guztiek kirol instalazioak behar dituzte beren ohiko jardunerako, eta instalazio publikoak erabiltzen dituzte. Hauek dira instalazio pribatueta aritzen diren klub bakarrak: A. D. Judo Krav-ka de Ermua eta C.D. Jator Karate Ermua.

KIROL ERAKUNDEA	ERABILITAKO INSTALAZIOA
C.D. ERMUA	Teodoro Zuazua futbol zelaia
C.AT.CASTILLA-LEON ERMUA	Kirol instalaziorik gabe
C.D. DE ARCO BETIONDO DE ERMUA	Anaitasuna Ikastolako jolastokia
CLUB DEPORTIVO SCORPIO	MABlanco Udal Kiroldegia / Betiondo Kirol Gunea
CLUB DE PADEL EL SARTENAZO DE ERMUA	Aritzmendi Kirol Eremuko padel pistak
C.D. ERMUKO ERROTABARRI ESKUBALOI KIROL ELKARTEA	MABlanco Udal Kiroldegia / Betiondo Kirol Gunea
CLUB JUDO SONKEI	Aritzmendi Kirol Eremuko tatami aretoa
ERMUA BLUES CLUB DEPORTIVO	Betiondo Kirol Guneako futbol zelaia
ERMUKO OSTOTS TRIATLOI KIROL KLUBA	Kirol instalaziorik gabe
ERMUKO TXIRRINDULARI ELKARTEA	Kirol instalaziorik gabe
G.M. ARTARRAI M.T.	Kirol instalaziorik gabe
SENG DO-HO SIN SUL KIROL KLUBA	Aritzmendi Kirol Eremuko tatami aretoa
CLUB DEPORTIVO DE BOLOS MONTAÑES DE ERMUA	Aritzmendi Kirol Eremuko bolatokia

04.3 Eskola Kirola

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolari buruzkoak, 5. artikuluan aipatzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena dela Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren bitartez eskola-umeen artean kirola sustatzea eta eskaintza hori kudeatzea



eta gauzatzea, udal administrazioekin lankidetzan.

Hala, Foru Dekretuak hainbat kirol ibilbide ezartzen ditu, eta horietako bakoitzaren barruan kirol jarduera desberdinak sartzen



ditu, Bizkaiko Eskola Kiroleko programa osatzeko. Hauek dira ibilbide horiek: Kirol Partaidetza, Errendimenduan Hastapenak eta Talentuen eta Etorkizun Oparoko Kirolarien Identifikazioa.

Kirol praktika Bizkaiko eskola-umeen artean, 2017



Kirol praktika oro har eta sexuaren arabera.




Kirol antolatua oro har eta sexuaren arabera.



Antolatutako kirola oro har eta sexuaren arabera.





Eskola-umeak

Eskola-umeen %60,4 biztanle aktibotzat har daitezke (eskola orduetatik kanpo kirola egiten du astean 5 orduz edo gehiagoz).

%18,6 biztanle sedentariotzat har daitezke (astean 2 orduz baino gutxiagoz egiten du kirola eskola orduetatik kanpo).

Biztanle sedentarioen ehuneko handiena 6 urtetik 8 urtera bitartekoena da (%26,3).

Nesken sedentarismo indizea mutilenaren bikoitza da (%25,5 eta %11,8, hurrenez hurren).

Hezkuntza etapa batetik besterako aldaketa une kritikoa da, kirola eta jarduera fisikoa uzteari dagokionez.

Eskola-umeen %67k kirol gehiago egin nahi lukete. Nahi hori handiagoa da nesken artean (%65,4koa; eta mutilen artean,%58,1koa).

Adinean gora egin ahala kirola ez egitea edo utzi izana arrazoitzeke gehien aipatzen diren argudioak denborarik eza (%34,6) eta beste jarduera batzuk egin behar izatea dira.


Ingurune sozialak eragina du kirola praktikatzeke aukeran. %90,5ek kirola egiten duten lagunak dauzkate; anai-arrebek ere egiten dute (%64,7), baita aitak (%60,6) eta amak (%52,5) ere.

Eskola-ume aktiboen ehunekoa handiagoa da ikastetxe pribatu edo itunduetan (%76,8; publikoetan, %67,4).



("Los Hábitos deportivos de la población escolar española, 2019" eta "Bizkaiko ikasleen kirol ohiturak, 2017" azterlanetatik ateratako datuak).

Ermuko ikastetxeak



CEIP Anaitasuna Ikastola HLHI
CEIP Ongarai HLHI
CEIP San Lorenzo HLHI
CPEIP Eskolabarri HLHIP
CPEIPS San Pelayo HLBHIP
EIC Ermuko Haurreskola PHE
IES Ermua BHI
UNI Eibar-Ermua
Mallabiko Herri Eskola

A black and white photograph of a skate park. In the foreground, a child wearing a helmet, a face mask, and protective gear is riding a scooter down a ramp. In the background, another child is also riding a scooter near a concrete block. The park features various ramps and a grassy area with trees in the distance.

**20
21**

**ERMUKO
KIROLAREN**
PLAN ESTRATEGIKOA

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

ERMUKO KIROLAREN

PLAN ESTRATEGIKOA

PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

KIROLERAKO ESTRATEGIAK ERMUKO HIRI AGENDAN

LURRALDEA

1. IBILBIDE SAREA
2. HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
3. ESPAZIO IRISGARRIAK ETA JASANGARRIAK
4. EKITALDIEN PROGRAMA

GIZARTEA

5. EGITURAK ETA EKOSISTEMA
6. ERMUA MUGI
7. KIROL INKLUSIBOA
8. BERDINTASUNA KIROLEAN
9. EUSKARA ETA KIROLA

EKONOMIA

10. KIROL EKINTZAILETZA

GOBERNANTZA ADIMENDUNA

11. KIROL TRANSBERTSALA
12. DATUAK ETA EZAGUTZA


KRONOGRAMA



KIROLERAKO ESTRATEGIAK ERMUKO HIRI AGENDAN

Ermuko Udala **Ermuko Hiri Agenda** prestatzen ari da, eta lanean dihardu ikuspegi estrategikoa aztertzeko eta 10 urterako Ezarpen Plan bat zehazteko, aukera emango duena **Hiri Estrategia** %100ean egokitzeko **Espainiako Hiri Agendak** proposatutako ikuspegiarekin.

Ermuko Udal Mapa Estrategikoan jasotako oinarri estrategikoa Hiri Agendarekin lerrokatuta dago.



Ermuko Kirolaren Plan Estrategia prestatzeko prozesu osoan zehar bildutako proposamenetatik abiatuta, **zenbait Proiektu Estrategiko diseinatu ditugu, eta Ermuko Hiri Agendaren ildo estrategikoen inguruan egituratu ditugu.**

Ermuko Kirolaren Plan Estrategikoa prestatzeko, 3 fasetan (aurretiko aurkezpen fasea kontuan hartu gabe) egituratutako metodologia bat erabili dugu, eta herritarren ezagutzak eta beharrak teknikarien ezagutzarekin uztartzen saiatu gara. Hori dela eta, elkarri lotutako bi bide planteatzen ditugu: partaidetzarena eta teknikoak.

Fase bakoitzean sartuta daude garatu beharreko zenbait urrats, baina partaidetzako lan ildoan urrats horien edukiak egokitu egin ditugu, Covid-19ak ekarritako murrizketen ondorioz.

PROZESU TEKNIKOAK



PARTAIDETZA PROZESUA

Covid-19ak ekarritako murrizketen ondorioz, hasieran aurreikusitako metodologia aldatu dugu, prozesu hibrido fisiko eta digital batera egokitzeko.


Alde batetik, udalerriko **kirol klubek online saio eta elkarrizketen** bidez parte hartu dute. Saio horietan, udalerriko kirol sistemari buruzko balorazioak egin, eta jarduteko proposamenak aurkeztu dituzte.

Herritarrek eta beste eragile batzuek **parte hartzeko, online galdetegi** batzuk diseinatu ditugu, eta Whatsapp bidez eta sare sozialen bidez zabaltu ditugu.

Era berean, **Lantalde** bat sortu da tokiko kirol arloan erreferenteak diren pertsonekin. Lantalde horrek **aurrez aurreko 5 talde dinamikatan** parte hartu du. Abiapuntutzat hartuta alde aurretik egindako analisia eta eragileen nahiz herritarren ekarpenak, jarduteko proposamen zehatzak diseinatu dituzte, eta horiek osatzen dute Ermuko Kirolaren Plan Estrategikoa.



Herritarrek online galdetegi bidez parte hartzeko aukera

HERRITARREN EZAGUTZA



Kirol sistemako eragileen parte hartzea online saio eta elkarrizketetan


SEKTOREAREN EZAGUTZA



EZAGUTZA TEKNIKOA

Ermuko izen oneko profesionalak eta eragile sozialak





LURRALDEA

LURRALDEA eremu estrategikoko proiektuek lotura zuzena dute hiri ereduarekin, bertako espazio publikoaren kalitatearekin, konektibitatearekin zein irisgarritasunarekin, eta udalerriaren inguruko ingurune naturalaren zaintzarekin.

Proiektu horiek oso lotuta daude Ermuan aplikatutako hiri aktiboaren ereduarekin, eta garrantzi handia ematen diote ingurune irekietan jarduera fisiko eta kirol jarduera askeak egiteari. Hala ere, ez da alde batera uzten hirian dauden kirol instalazioen errealitatea, eta horien jasangarritasuna eta irisgarritasuna lortzera bideratutako zenbait ekintza planteatzen dira.

1. IBILBIDE SAREA

1.1. ERMUKO ETA INGURUETAKO OINEZKOENTZAKO IBILBIDE SAREA EGOKITZEKO ESKU HARTZEEN PROGRAMA

2. HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA


- 2.1. ARIZMENDI PILOTALEKUAREN ONDOKO PLAZA- SAN PELAYO KALEA 44-58
- 2.2. ANAITASUNA IKASTOLAKO ETA ONGARAI HLHI-KO EREMUA
- 2.3. OKINZURIKO KIROL KANTXAK ETA PARKEA

3. ESPAZIO IRISGARRIAK ETA JASANGARRIAK

- 3.1. KIROL PRAKTIKA ASKERAKO ESPAZIO IREKIAK
- 3.2. AIRE ZABALEKO IGERILEKUA
- 3.3. KIROL ESPAZIOETARAKO IRISGARRITASUNA
- 3.4. KIROL ESPAZIOEN INGURUMEN JASANGARRITASUNA

4. EKITALDIEN ESTRATEGIA

- 4.1. EKITALDIEN PROGRAMA ETA AGENDA



Kod.	Proiektu estrategikoa
1	IBILBIDE SAREA
	Helburua
	Oinarrizko ibilbide sarearen oinezkotasuna eta segurtasuna hobetzea.

Ermuko biztanle helduen artean, oinez ibiltzea da jarduera fisiko ohikoena. Udalerria inguratzen duen ingurune naturala aproposa da paseatzeko, bai ingurune horrengatik, baita bertatik igarotzen diren errepideengatik ere.


Oinezko aztarnen analisiak erakusten du hiru ardatz nagusi daudela oinez ibiltzeko. Hiru ardatz horiek bat datoz, zehatz-mehatz, Hiribiliko hiru ibilbideekin:


- Goitondo
- Urtia
- Sallabente

Partaidetza prozesuan zehar, galdetegietan eta lantaldean zenbait emakumek aipatu zuten ibilbide horien zati batzuetan ez direla seguru sentitzen iluntzen duenean. Aztarnen analisisan emakumeentzako muga hori berresten duten desberdintasunak hautematen dira gizonen eta emakumeen ibilbideen artean.

Hiriaren inguruko guneeetan segurtasun txikiagoa sentitzea ohikoa da beste hiri eta herri batzuetan ere. Ermuan, hiriak forma lineala eta konpaktua duenez, inpaktu hori are agerikoagoa da. Ibiltzeko bideak berehala ateratzen dira hirigunetik, udalerriren arteko eremuetan sartzeko. Ibilbide zati horietan argiztapena urriagoa da, pertsona gutxiago ibiltzen dira eta leku askotan errepidearen bazterretik joan behar da; horrek guztiak segurtasunik eza areagotzea dakar.

Bide horiek hobetzeko beharra planteatu da. Ikusgaitasuna hobetu behar da, eta errepidetik bereizi behar dira oinezkoentzako bideak.






Kod.	Proiektu estrategikoa
1	IBILBIDE SAREA
	Helburua
	Oinarrizko ibilbide sarearen oinezkotasuna eta segurtasuna hobetzea.


1.1. ERMUKO ETA INGURUETAKO OINEZKOENTZAKO IBILBIDE SAREA EGOKITZEKO ESKU HARTZEEN PROGRAMA.

Hainbat arlotan planteatzen dira esku hartzeak:

- Oinezkoentzako bidexkak edo bideak errepidetik erabat **bereiztea**, edo elementu babesgarrien bidez, erabateko bereizketa egin ezin den lekuetan.
- **Argiztapena** hobetzea ibilbide guztietan, bereziki ibilbideen jarraitutasuna eteten duten zatietan.
- **SOS puntuak** edo zuzenean poliziari deitzeko antzeko sistemak instalatzea, segurtasun eta osasun zerbitzuak iristeko denbora murrizteko.



Proposamenak prestatzeko prozesuan, esku hartze hori Ermuko Udalak bakarrik egitea oso zaila edo ezinezkoa dela identifikatu da. Bideen zati handi bat udalaren esku hartze eremutik kanpo dago. Horrexegatik, **Eibarko eta Mallabiko udalekin batera lan egitea proposatzen da**, baita **Bizkaiko Foru Aldundiarekin** ere, ermuarrentzat eta inguruko udalerrietako bizilagunentzat onuragarria izango den sare hori osatzeko.



Kod.	Proiektu estrategikoa
2	HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
	Helburua
	Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrak aktibatze.


HIRI DISEINU AKTIBOA= komunitate aktibo eta osasungarriak babesteko estrategia operatiboetan, garapenean eta ebidentzian oinarritutako hiri diseinua.

Kontzeptu hori jatorrian 2010ean New Yorken argitaratutako [Active Design Guidelines](#) gidaliburuan planteatzen zen, osasuna sustatzen duten eraikin, kale eta hiri espazioen sorrera bideratzeko, oinarritzat hartuta azken ikerketa akademikoak eta kasu arrakastatsuen ebidentzia onenak.

Hiriguneko espazio irekien proportzioak eta kalitateak eragina du, neurri handi batean, biztanleriak egiten duen jarduera fisikoaren mailan. Berriki egindako ikerketak zuzenki erlazionatzen du olgetarako parke edo/eta espazioen hurbiltasuna gazte zein helduen jarduera maila altuekin. Diseinu aktiborako lerroen helburu nagusia egunero jarduera fisikoa egiteko aukerak areagotzea da, gaixotasun kroniko gero eta ugariagoei aurre egiteko.




Partaidetza prozesuan sortutako proposamenetako batzuek zerikusia dute hiri diseinu aktiboarekin. Zehazki, funtzio anitzeko espazioen sare bat sortzea planteatzen da, era askotako jarduerak egin ahal izateko, hala nola kirola, aisialdiko jarduerak eta jolasak; paisaiarekin eta hiriarekin lotutako beste erabilera batzuk ere izango lituzkete. Azken batean, hiriko zenbait espazio “aktibatu” nahi dira, jolasa eta jarduera fisikoa sustatzeko elementuak eta diseinuak aplikatuz, gainerako hiri funtzionalitateak mantenduta.





Kod.	Proiektu estrategikoa
2	HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
	Helburua
	Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrek aktibatzen.


IDENTIFIKATUTAKO ESPAZIOAK



**2.1. ARIZMENDI PILOTALEKU ONDOKO PLAZA
SAN PELAYO KALEA 44-58**

**2.2. ANAITASUNA IKASTOLAKO
ETA ONGARAI HLHI-KO EREMUA**

**2.3. OKINZURIKO KIROL
KANTXAK ETA PARKEA**



Kod.	Proiektu estrategikoa
2	HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
	Helburua
	Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrek aktibatzen.

ESPAZIOAK AKTIBATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO HIRU PROGRAMA

Garrantzitsua da Ermuko hiru programa estrategiko aipatzea, aktibaziorako proiektu estrategiko hau horiekin lerrokatzen baita. Hiru programa horiek bide-erakusle izan behar dute, esku hartzeak planteatzeko orduan.


- **ERMUA, HAURREN LAGUNA DEN HIRIA**

Ermuko Udalak eta UNICEFek hitzarmen bat sinatu dute, eta bertan Haurren Laguna den Hiritzat onartzen da udalerria. Hiri bat haurren lagun da, baldin eta, bere arazoek eta hobekuntza arloen jakitun, epe labur, ertain eta luzerako ekintza eta neurri zehatzen bidez haurren eskubideen alde lan egiteko konpromisoa hartzen badu eta horretarako baliabideak bideratzen baditu. UNICEFek [Construyendo el entorno urbano para niños y niñas. Un manual sobre la planificación urbana responsable con la infancia](#) txostena egin du, hiri diseinu aktiborako esku hartzeak bideratzeko.

- **ERMUA, HIRI HEZITZAILEA**

Udal estrategiak garrantzi handia eman dio Ermua hiri hezitzaile bihurtzeari. Hiri hezitzaile batean, bertako eragile guztiak dira eragile hezitzaileak, eta helburua da bere etorkizunean protagonismoa hartuko duen hiri partizipatiboagoa eta kritikagoa sortzea.

- Belaunaldien arteko bizikidetzaren espazioak: "Proiektu horien helburuak izan beharko luke ekimen eta ekintza zibikoak egitea, baliotzat izango dutenak, hain zuzen, belaunaldiartekotasuna eta adin desberdinen berezko gaitasun eta balioei probetxua ateratzeko aukera." (Hiri Hezitzaileen Gutuna)




Kod.	Proiektu estrategikoa
2	HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
	Helburua
	Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrek aktibatzen.

- o Irisgarritasuna: “Hiriko espazio fisikoaren antolaketak irisgarritasuneko, topaketako, harremanetako, jolaserako eta aisialdirako beharrei erantzungo die, eta naturatik hurbilago egongo da.”
- ERMUA, HIRI LAGUNKOIA ADINEKO PERTSONENTZAT**

Ermuak lanean dihardu hiri lagunkoia izateko adineko pertsonentzat; horrek berekin dakar horien ingurune fisiko eta sozialarekin erlazionatutako politikak, zerbitzuak eta egiturak adinekoek duintasunez bizi ahal izateko, osasun ona izateko eta gizartean bete-betean eta aktiboki parte hartzen jarraitzeko diseinatu eta berrantolatu behar direla.

OMERen arabera pertsonen osasunean eta bizi kalitatean eragina duten 8 arloen artean bada bat hiri diseinu aktiboko hiru proposamen hauekin lotura zuzena duena: Aire zabaleko espazioak eta eraikinak.



Kod.	Proiektu estrategikoa
2	HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
	Helburua
	Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrek aktibatzeko.

DISEINU AKTIBOKO ESKU HARTZE POSIBLEETARAKO IDEIA BATZUK

Proiektuak jarduera fisikoa sustatuko duten espazio ez-normalizatuak sortu nahi ditu. Ez du esan nahi kantzak edo bestelako kirol ekipamendu klasikoak jartzea.

Diseinu aktiboko esku hartzeen zenbait ideia eta adibide erakutsiko ditugu, baina espazio bakoitza proiektu propio gisa planteatu beharko da.


Hirigintza taktikoko esku hartzeekin hasteko aukera planteatzen da, eta ondoren, ebaluazio positiboa jaso ostean, behin betiko esku hartzeak proposatzea.

HIRIGINTZA TAKTIKOA

Hirigintza Taktikoa hiri eraldaketarako tresna erraz bat da, hiri ereduan aldaketak egiteko aukera ematen duena eskala txikiko esku hartzeetatik abiatuta. Hiriko espazioentzat erabilera berriak bilatzen ditu, esperimendazioaren bidez, hobetzeko ebaluazioaren bidez eta mailaz mailako garapenaren bidez. Sozializazioa eta dinamizazio komunitarioa funtsezkoak dira hirigintza taktikoko ekintzetan.

Hirigintza taktikoko jarduerak, hortaz, honako ezaugarri hauek dituzte:

- Kostu txikia dute, eta horrek erraztu egiten du ezartzea, aldatzea eta, nahi den inpaktua eragiten ez badute, atzera egitea.
- Jarduera horien ezarpenak arina eta erraza izan behar du, eta, horrenbestez, ezin hobeak dira aldaketak bizkor egiteko.
- Jarduerak proiektu orokor aldagarri baten barruan kokatuta daude, eta herritarren beharretara egokitzuz joango dira.



Kod.	Proiektu estrategikoa
2	HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
	Helburua
	Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrek aktibatzen.

Hirigintza taktikoaren bidez gauzatutako eraldaketak funtzionatzen badu, aurrerago behin betiko bihurtzen da, obra eginez. Aldaketak egin behar badira, amaierako proiektua egokitu egiten da.


Ezaugarri horiek tarteko, hirigintza taktikoa formula bikaina da, hiri ingurunea hirigintza aktiboko eredu batera egokitzen.

Garrantzitsua da kontuan hartzea hirigintza taktikoko esku hartze horiek aldi baterakoak izan behar dutela. Horien inpaktuak ebaluatu egin behar da, beharrezko aldaketak sartu ahal izateko eta herritarren beharren gaineko ezagutza sortzeko. Kostu txikiko elementu horiek luzaroegi mantentzeak espazio publikoaren kalitatea hondatu dezake, eta arinkeria sentsazioa sorraz dezake. Behin ebaluatu eta doitu direla esku hartzeak, behin betiko esku hartzeak egin behar lirateke, beharrezko kalitatearekin.



Hirigintza taktikoko esku hartzea Bartzelonako 'Superille' batean. Esku hartze horietako askok jolas aktiboa eta espazio publikoaren dinamizazioa sustatzen dituzte.

ARIZMENDI PILOTALEKUAREN ONDOKO PLAZA (2.1.) leku egokia izan daiteke horrelako esku hartzeak egiteko behin betiko diseinu bat eduki arte.



Kod.	Proiektu estrategikoa
2	HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
	Helburua
	Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrek aktibatzen.

JOLAS MARKAK ZORUAN

Espazioak jolasa eta jardura askea sustatzen duten elementuen bidez aktibatzen garaian, aipatu beharra dago plaza eta haur parkeetako **zoruko markak** eraginkorrak eta nahiko merkeak direla.




Ridgers ND, Stratton G, Fairclough SJ, Twisk JWR (2007). "Long-term effects of playground markings and physical structures on children's recess physical activity levels". Preventive Medicine. 2007;44: 393.-397. or.

Irungo (Gipuzkoa) Art-Sasoi proiektua, Puiana plaza aktibatzen

Bestalde, gainazal motak ere eragin argia du, eta **soropilezkoak** dira aktibatzaileenak. Gainera, jolastokietan **elementu mugikorrak eta desnibelak** jartzeak jardura fisiko handiagoa eginarazten die haurrei.

Bondo-Andersen, H. et al. (2015) Objectively measured differences in physical activity in five types of schoolyard area. Landscape and Urban Planning Journal.





Kod.	Proiektu estrategikoa
2	HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA
	Helburua
	Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrek aktibatzen.


JOLASTOKI BERTINZALEAK ETA AKTIBATZAILAK

ANAITASUNA IKASTOLAKO ETA ONGARAI HLHI-KO (2.2.) eremua aukera onak eskaintzen dituen eremutat jotzen da, bai ikastetxe horietako eskola-umeen artean jardura fisikoa sustatzeko, baita herritarrentzat oro har baliabide komunitario gisa irekitzeko.

Aurrez aipatutako aukerak (markak eta gainazalak zoruan) planteatzen dira, **jolastoki berdinzale** bateranzko eraldaketa prozesuaren barruan. Ogilvy Barcelona-ren eta Equal Saree arkitektura estudioaren *Equal Playgrounds* azterlanaren arabera, eskoletako jolastokiak %75 inguruk "futboleko zentratutako" antolaketa dute. Ondorioz, futbola ez den beste zerbaitean aritu nahi duten mutilak eta nagusiki neskak jolastokiaren "periferian" baztertuta geratzen dira, eta jardura estatikoagoak eta pasiboagoak egiten dituzte. ([UNICEF – Haurren Lagun diren Hiriak](#))



Vitoria-Gasteizko San Prudencio ikastetxeko **Patioak martxan!** proiektua.



Kod.

Proiektu estrategikoa

HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA

2

Helburua

Hiriko espazioan diseinu aktiboko elementuak sartzea, espazioa bera dinamizatzeko eta herritarrek aktibatzen.



Jardins de Sant Pau del Camp (El Raval – Bartzelona)

Kanasta eta ateen kokapena erabilgarri dagoen espaziora egokituta dago, eta instalazio irregular eta ez-konbentzional bat sortzen da. Ondoan, *pumptrack* bat.

Gazteek espazioa bereganatzen dute, berrinterpretatu eta beretu egiten dute, beren jardueren bidez.

ESPAZIO ETA INSTALAZIO EZ-KONBENTZIONALAK


Proposatutako hiru espazioetarako, baina bereziki **OKINZURIKO KIROL KANTXETARAKO ETA PARKERAKO (2.3.)** kirol espazio ez-konbentzional bihurtzea proposatzen da. Hau da, eremu horretarako diseinu espezifiko bat egitea, gai nagusitzat kirola izango duen eremu bat sortzeko, baina ez dituen izango ez neurri ez forma konbentzionalak eta sozializatorako espazioz hornitua egongo dena.

KONTUAN HARTU BEHARREKOA: hiru espazio horietan, birdiseinurako esku hartzeaz gain, jarduerak dinamizatu beharko dira, hasieran behintzat, espazioak aktibatzen. Ez ahaztu sozializatorako espazioak jartzea guztietan.

Puckelboll edo “Futbol konkorduneko” zelaia

Mälmo (Suedia)





Kod.	Proiektu estrategikoa
3	ESPAZIO IRISGARRIAK ETA JASANGARRIAK
	Helburua
	Kirol espazioen sarea irisgarritasun eta jasangarritasun irizpideak aintzat hartuta osatzea.

Ermuko kirol instalazio eta espazioen sarea estimatua dago, eta kalitatezko zat jotzen dute, zenbait premia planteatzen badira ere:

- Kirol praktika askerako espazio irekiak
- Aire zabaleko igerilekua
- Kirol espazio guztietarako irisgarritasuna bermatzea
- Espazio horiek ingurumen jasangarritasunerantz bideratzea

3.1. KIROL PRAKTIKA ASKERAKO ESPAZIO IREKIAK


Honi dagokionez, aurreko bi proiektu estrategikoak planteatzen ditugu: “Ibilbide sarea” eta “Hiriko espazioen aktibazioa”. Kanpoaldeko espazio konbentzionalen eskaintza egokitzea jotzen da egungo beharrei erantzuteko. Horiek berritzeko unean, beharretara egokituta jarraitzen duten aztertu beharko da.

3.2. AIRE ZABALEKO IGERILEKUA

Duela asko sortutako eskaera da, eta herritarren nahietako bat izaten jarraitzen du. Egia esan, Ermuko hiri lurzorua eskasiak izugarri zailtzen du aire zabaleko igerileku bat eraikitzea, horretarako azalera handia behar baita, bai ur ontzia jartzeko, baita berdegunerako ere.

Kirol Alorrak eta Hirigintzakoak elkarlana egin behar dute, kanpoko igerilekua har dezaketen espazio posibleak **identifikatzeko**.

Lurrik ez badago, Mallabiko udalerriarekin (Elgeta ere izan liteke, baina Mallabia lehenesten da) **igerileku partekatu** bat eraikitzeke hitzarmenak lantzeko aukera aztertu behar da.



Kod.	Proiektu estrategikoa
3	ESPAZIO IRISGARRIAK ETA JASANGARRIAK
	Helburua
	Kirol espazioen sarea irisgarritasun eta jasangarritasun irizpideak aintzat hartuta osatzea.


3.3. KIROL ESPAZIOETARAKO IRISGARritASUNA

Kirol espazioetarako irisgarritasuna funtsezko faktorea da pertsona guztiei errazteko bizimodu aktiboa, bereziki mugikortasun murriztua dutenei. Ezinbestekoa da Ermuko kirol instalazio, ekipamendu eta espazio guztiak pertsona ororentzat irisgarriak izatea.

Programa honen bidez, kirola praktikatzeko aukerak eman nahi zaizkio mundu guztiari, bereziki aniztasun funtzionala duten pertsonen, eta kirolaren bidez integrazio soziala bultzatu nahi da.

Horretarako, jarduera hauek proiektatzen dira:

- **Irisgarritasun diagnostikoak eta planak** prestatzea: irisgarritasun fisikoa instalazioetara iristeko eta horien barruan.
- Makina eta **ekipamendu espezifiko**en hornidura.
- Araudiaren arabera egokitutako **seinaleak**.




Kod.	Proiektu estrategikoa
3	ESPAZIO IRISGARRIAK ETA JASANGARRIAK
	Helburua
	Kirol espazioen sarea irisgarritasun eta jasangarritasun irizpideak aintzat hartuta osatzea.

3.4. KIROL ESPAZIOEN INGURUMEN JASANGARRITASUNA

Ingurumen jasangarritasuna Ermuko udalerriaren ardatz estrategiko nagusietako bat da.

Udalerriko kirol instalazioek energia eta bestelako baliabide ugari kontsumitzen dute. Eta kontsumo energetiko horretatik eratorritako CO2 emisioak sortzen dituzte. Beharrezkotzat jotzen da Ermuko instalazioen kontsumoak eta emisioak ezagutzea, horiek murrizteko neurriak hartu ahal izateko. Horretarako, hauek proiektatzen dira:

- **Ingurumeneko auditoretza** bat egitea instalazio guztietan.
- Instalazioen **ingurumen inpaktua murrizteko ekintza plan** bat diseinatzea, batik bat kontsumo energetikoa eta emisioak murrizteko plan bat. Efizientzia energetikoa hobetzeko, aurrezteko eta instalazioetan energia garbiak sartzeko neurriak ezartzea. (Ur beroaren ekoizpena, berogailua, argiztapena, hozte sistema eta aireztapena).



Kod.	Proiektu estrategikoa
4	EKITALDIEN ESTRATEGIA
	Helburua
	Ermuko udal estrategiarekin bat datorren ekitaldien estrategia diseinatzea, baita horiek babesteko eredu bat ere.

DESKRIBAPENA


Kirol ekitaldiak tresna bikaina dira udalerri baten kirol garapenerako, garapen sozialerako edo/eta garapen ekonomikorako. Tresna hori, baina, ongi kudeatu behar da, inpaktu posible horiek aprobetxatzeko eta udalerriak esperotakoak izatea lortzeko. Ekitaldi batzuk udalerri batentzat baino positiboagoak izan daitezke beste batentzat. Ekitaldien estrategia hiriaren strategiara egokitu behar da, bertako behar, interes eta ezaugarrietara.

4.1. EKITALDIEN PROGRAMA ETA AGENDA

Garrantzitsua da kirol ekitaldien bidez udalerrian zer lortu nahi den hausnartzea, eta ekitaldien estrategia bat diseinatzea, zehazteko zer ekitaldi egin daitezkeen jarduera fisikoa eta kirola, berdintasuna eta irisgarritasuna sustatzeko, eta zer ekitaldik ekar dezaketen dinamizazio ekonomikoa eta turistikoa. Era berean, tartean dauden eragileak eta ekitaldi horietan beteko duten eginkizuna zehaztu behar dira. Garrantzitsua da plangintza modu transbertsealean egitea udaleko arloen eta eragile desberdinen artean, baliabideak behar bezala aprobetxatzeko.


Hori lortzeko, ekitaldien estrategiarekin lotutako zenbait ekintza planteatzen dira:

- **Ekitaldien estrategia definitzea** eta udalak horiei begira duen jarrera zehaztea. Aurreikuspenen arabera, erakundeetan erreleborik ez izateak eta horrelakoak antolatzea gero eta zailagoa izateak Ermuko kirol ekitaldi ugari pixkanaka desagertzen joatea ekarriko du. Hori dela eta, **Udala** interesekoak diren zenbait ekitaldiren antolakuntzan **gehiago inplikatzeko** planteatzen da. Inplikazio horrek zuzena izan beharko du, seguru asko; izan ere, ikusten denez taldeei laguntzak ematea ez da nahikoa horrelakoak aurrera ateratzeko.



Kod.	Proiektu estrategikoa
4	EKITALDIEN PROGRAMA
	Helburua
	Ermuko udal estrategiarekin bat datorren ekitaldien estrategia diseinatzea, baita horiek babesteko eredu bat ere.

- **Kirolarekin eta naturarekin lotutako ekitaldiak eta jarduerak** sustatzea. Mendi elkartearekin eta Ermuko ingurune naturalekin zerikusia duten beste eragile batzuekin batera lan egitea.
- Kirol ekitaldien eta jardueren **ingurumen adierazleen taula** bat diseinatzea. Informazio hau biltzeko prozesua: aurretik, baimenak eskatzean, eta ondoren, kontratua edo dirulaguntza likidatzean. Ebaluazioaren emaitzak komunikatzea eta publikoki zabaltzea.
- **Beste eremu/arlo batzuetako ekitaldiekin lankidetzak:** Mugikortasunaren Europako Astea. Transbertsalitate adibide ona izan daiteke, jarduera fisikoa eta osasuna beste politika batzuetan txertatzeko aukeren gaineko barne sentsibilizaziorako.



GIZARTEA

GIZARTEA eremu estrategikoko proiektuek berdintasun, ekitate eta bizikidetzarako ildo argiak ezartzen dituzte. Era berean, eremu estrategiko horrek Udalaren Kirol Alorrerako helburu zehatzak txertatzen ditu, eta, osasunaren arloan, Ermua Mugi proiektuaren aldeko apustua egiten du. GIZARTEA eremu estrategikoak kirolean alderdi soziala txertatzeko eta Ermuan jarduera fisikoa sustatzeko bide-erakusle izan behar du.

5. EGITURAK ETA EKOSISTEMA

- 5.1. KIROL KLUBETARAKO LAGUNTZA
- 5.2. GURASO ELKARTEETARAKO LAGUNTZA

6. ERMUA MUGI

- 6.1. ERMUA MUGI PROIEKTUA BIRDISEINATZEA

7. KIROL INKLUSIBOA


- 7.1. KIROLA INKLUSIO TRESNA GISA

8. BERDINTASUNA KIROLEAN

- 8.1. ERMUAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA APLIKATZEA
- 8.2. BERDINTASUNA KLUBETAN

9. EUSKARA ETA KIROLA

- 9.1. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLAN OROKORRA APLIKATZEA
- 9.2. KLUBETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA



GIZARTEA



Kod.	Proiektu estrategikoa
5	EGITURAK ETA EKOSISTEMA
	Helburua
	Kirol ekosistema indartzea, laguntza eta baliabideak emanez egitura asoziatiboei.

DESKRIBAPENA

Proiektu estrategiko honen helburua da Ermuko kirol ekosistema indartzea. Asoziazionismoaren eginkizuna funtsezkoa da, udalerrian kirola behar bezala garatzeko, baita herritarrei ahalik eta modalitate gehien eskaintzen dizkien kirol eskaintza askotarikoa aurkezteko ere. Lerro honetan, oinarrizko bi eragile motarekin lan egingo da: kirol klubak eta guraso elkarteak.


5.1. KIROL KLUBETARAKO LAGUNTZA

Kirol modalitate federatuen eskaintza mugatua da Ermuan. Balorazioen arabera, aniztasun gutxi dago, eta horrek berekin dakar herritarrek jarduera fisiko eta kirol gutxiago egitea.

Bestalde, kirol klubetako zuzendaritza eta kudeaketa lanen exigentziaren ondorioz, gero eta zailagoa da zuzendaritza batzordeetarako erreleboa aurkitzea belaunaldi berrien artean.

Egoera hori izanik, bi ekintza ildo proposatzen dira:

- **Klub mankomunatuak.** Ondoko beste udalerri batzuetan Ermuan eskaintzen ez diren kirol modalitateak praktikatzen dituzten kirol klubekin lan egiteko hitzarmenak sinatzea, ermuarrek modalitate horiek egiteko aukera izan dezaten. Hitzarmen horiek diseinatzean, akordioak planteatzen dira instalazioak lagatzeko, asteko egun jakinetan entrenamenduak Ermuan antolatzeke, talde filialak osatzeko, etab.
- **Kluben eraketa.** Maila guztietako formakuntza programa bat diseinatu eta abiaraztea: zuzendaritza batzordeentzat, zuzendaritza eta administrazioko karguentzat, kirol teknikarientzat edo baita kirolarientzat ere. Garrantzitsua da, erakunde gaurkotuak, indartsuak eta konprometituak lortzeko. Klubekin elkarlanean diseinatzea, dauzkaten beharren arabera.



GIZARTEA



Kod.	Proiektu estrategikoa
5	EGITURAK ETA EKOSISTEMA
	Helburua

- **Klubetako lan administratiboak profesionalizatzeko laguntza.** Kirol erakundeei laguntzeko egitura/bulego bat martxan jartzeko aukera balioestea proposatzen da. Egitura/bulego horretan, izaera tekniko eta administratiboko pertsona batek araudiari eta zergei lotutako obligazioak egunean izaten lagunduko lieke klubei. Bulego horrek, era berean, espazioen, instalazioen eta lehiaketen koordinazioa erraztuko luke, eta komunikazio bateratua eskainiko lieke herriko erakundeei.


Aukera egingarriena hauxe da: klub handienetako bati dirulaguntza ematea pertsona hori kontratatzeko, klub horretako lanez gain Ermuko gainerako klubetakoak ere egin ditzan.

5.2. GURASO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZA

- **Guraso elkarteetako kirol egiturak eratzeke eta egonkortzeko laguntzen** ildoak. Kirol eta hezkuntza arloen arteko lan transbertsal gisa planteatzen da. Laguntzak jasotzeko, egitura horiek Eskola Kiroleko programa bat diseinatu behar lukete eta programa horren arduradun bat izendatu behar lukete. (Erreferentzia gisa, [Tolosako Udalaren](#) oinarri arautzaileak kontsulta daitezke).

Koordinatzaileak eta begiraleak kontratatzeari dagokionez, egitura horiek hemen aurki dezakete laguntza: [BIGE gurasoen elkarteak](#).

Horrelako egitura bat martxan jartzeko, Eusko Jaurlaritzak kirol erakundeak sortu eta kudeatzeko [gida](#) batzuk argitaratu zituen, eta horietako bat [ikastetxe eta guraso elkarteentzat](#) da.



GIZARTEA




Kod.	Proiektu estrategikoa
6	ERMUA MUGI
	Helburua
	Ermua Mugi programa birdiseinatzea, estrategia eta eredua bera birplanteatuta.

DESKRIBAPENA

Ermua Mugi proiektua birplanteatzeko prozesua. Talde sustatzaileak oso positiboki baloratu du proiektua, eta, hortaz, berrikustea planteatzen da. Zenbait egoera berri hauteman dira, eta horiei esker nahiz orain arte esperientziaren bidez ikasitakoari esker, Ermua Mugi proiektuaren ikuspegia herritar talde berrietara eta behar desberdinetara zabaldu ahal izango da, eta talde bakoitzarentzat eraginkorrakoak diren estrategian zentratuko da.

6.1. ERMUA MUGI PROIEKTUA BIRDISEINATZEA

- Jarduera fisikoa egiteko zailtasunak dituzten **herritar taldeak** identifikatzea eta hautatzea: adinekoak, emakumeak, mendekotasuna duten pertsonak, nerabeak, kontziliazio arazoak dituzten pertsonak, etab.
- Herritar talde desberdinentzako jardueretan izandako praktika onen **ebidentzia** aztertzea.
- Udalerrian jarduera fisikoa sustatzeko **sare eraginkorrak** dinamizatzea. Dinamizaziorako ahalmena duten hezkuntza, gizarte eta osasun arloetako eragileek, erakundeek, elkarteek eta pertsonak Ermua Mugiren parte izan behar dute. Beste eremu batzuetako eragileetako askoren sentsibiltatea, batik bat osasun arlokoena, oso onuragarria da sare horiek indartzeko garaian.
- Egitura egonkor bat **diseinatu eta finantzatzea**. Biztanleriak egiten duen jarduera fisikoan aldaketak eragiteko denbora eta irmotasuna behar dira.
- Esperotako helburuekin bat datorren **ebaluazio sistema** bat ezartzea, Ermua Mugi eta antzeko proiektu ireki eta transbertsalek ezin ukituzko alderdietan duten inpaktua kontuan hartua.



GIZARTEA




Kod.	Proiektu estrategikoa
6	ERMUA MUGI
	Helburua
	Ermua Mugi programa birdiseinatzea, estrategia eta eredua bera birplanteatuta.

- Aurreko puntuarekin lotuta, Ermua Mugi programaren diseinu berrian **datuak biltzeak eta aztertzeak** duen potentziala txertatu behar da, eta, horretarako, Qlik tresna eta uda errolda ezarri behar dira.
- Ermua Mugi, **hiri estrategia gisa**. Osasunaren sustapena **transbertsalitate** planteatzen da, arlo desberdinek parte hartzen duten osagai anitzeko estrategiak behar baititu. Jarduera fisikorako tokiko estrategia integralek hainbat arlotan dute eragina, eta, horrenbestez, ikuspegi transbertsala behar da.

500 IKERKETEK BAIÑO GEHIAGOK BABESTEN DITUZTE MUGITZEKO DISEINATUTAKO HIRIEN ONURAK





GIZARTEA



Kod.	Proiektu estrategikoa
7	KIROL INKLUSIBOA
	Helburua
	Ermuan kirola praktikatzeko eta bizi estilo aktiboak izateko muga sozioekonomikoak murriztea eta ezabatzea.


DESKRIBAPENA

Gizarte bazterketa modu askotan gerta daiteke, eta ez da mugatzen alderdi ekonomikoetara; alderdi soziodemografikoek eta kulturelek ere zerikusia dute. Ermuko Udaleko Kirol Alorra pertsona guztiengana iristen saiatzen da, baita kirola egiteko zailtasun handiena duten eta kirol sistemak sarri ahaztu egiten dituen pertsonengana ere.

Idea horretatik abiatuta, Ermuko Udaleko Kirol Alorra bere politika eta programetan ekitate eta inklusio irizpideak txertatzeko lanean ari da. Era berean, kirol sisteman parte hartzen duten gainerako eragileen artean ere inklusio eta irisgarritasun irizpideak sustatzen saiatuko da.

7.1. KIROLA INKLUSIO TRESNA GISA

- **Programa bat kaleko hezitzaileekin.** Pertsonen Alorrarekin (Gizarte Zerbitzuak) lankidetzan aritzea, jarduera fisikoa eta kirola txertatzeko inklusio programetan eta kaleko hezitzaileek gauzatzen dituzten esku hartzeetan.
- **Tarifa sozialak.** Errenta txikieneko pertsonen prezio hobaridunak eskaintzeko eredua berraztertzea, kirola praktikatzeko erraztasunak izan ditzaten, kirol ekipamenduak erabiltzeko aukera berdinak sustatuz, herritarrentzako oinarritzko zerbitzutzat hartuta.
- **Tarifa sozialak eskuratzeko prozedurak** hobetzea. Tarifa sozialak zuzenean aplikatzea Udaleko Gizarte Zerbitzuetan erregistratuta dauden guztiei. Pertsona askok ez dituzte tarifa sozialak eskatzen, kiroldegiko langileen aurrean lotsa sentitzen dutelako. Gainerako udal arloekiko elkarreragingarritasunak prozesua erraztu eta leihatila bakarrera murriztu behar du.




GIZARTEA



Kod.	Proiektu estrategikoa
7	KIROL INKLUSIBOA
	Helburua
	Ermuan kirola praktikatzeko eta bizi estilo aktiboak izateko muga sozioekonomikoak murriztea eta ezabatzea.

- **Inklusioa klubetan.** Klubetan inklusioa bultzatzeko programa, barne hartuta: inklusioari lotutako irizpide espezifikoak dirulaguntzetan eta oinarrizko formakuntza kulturartekotasunean.
- **Kulturarteko kirola.** Beste nazionalitate eta jatorri batzuetako pertsonen elkarte eta taldeekin akordioak egitea, haien kirol praktikak ezagutzea emateko jardunaldiak edo tailerrak antolatuz edo eskolaz kanpoko ekintzen programaren baitan.
- **Gizarte Zerbitzuetatik** Ermua Mugi programara **bideratzea** jarduera fisikoari eta kirolari esker errazago gizartera daitezkeen pertsonak.
- Jatorri migratzaileko pertsonen Ermuko kirol sisteman eta zerbitzuetan **harrera egiteko prozedurak**. Gizarte Zerbitzuko Alorrarekin batera diseinatzea prozedurak.



GIZARTEA



Kod.	Proiektu estrategikoa
8	BERDINTASUNA KIROLEAN
	Helburua
	Ermuko kirolean genero desberdintasunak desagerraraztea maila eta rol guztietan.


DESKRIBAPENA

Kirol praktikari buruzko inkestek genero desberdintasun nabarmenak erakusten dituzte. Oso garrantzitsua da Ermuko Kirol Alorrak genero ikuspegia txertatzea bere estrategia guztietan. Helburu hori lortzeko, kirol politikak Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Planak ezarritako irizpideak txertatu behar ditu, eta, era berean, kirolak plan horretako helburuak erdiesten nola lagun dezakeen planteatu behar du.

8.1. ERMUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN PLANA APLIKATZEA

Berdintasun Planean bertan jasota dago politika publiko guztietan eta horien fase guztietan (diseinutik ebaluazioraino) genero ikuspegia txertatzeko beharra. Kirol Alorretik, Berdintasun Sailarekin batera lan egin behar da, Plana ezartzeko. Hona hemen lan eremu batzuk:

- Ermuko Kirol Alorraren antolakuntza eta funtzionamendua.
- Aurrekontuaren kudeaketa.
- Udalaren kirol eskaintza.
- Kirol erakundeen kirol eskaintza.
- Kirolerako azpiegiturak eta espazioak.
- Formakuntza berdintasunean.
- Komunikazio ez-sexista.



GIZARTEA




Kod.	Proiektu estrategikoa
8	BERDINTASUNA KIROLEAN
	Helburua
	Ermuko kirolean genero desberdintasunak desagerraraztea maila eta rol guztietan.

8.2. BERDINTASUNA KLUBETAN

Kluben funtzionamenduan genero ikuspegia sartzea. Horretarako, zenbait ildotan esku hartzea planteatzen da:

- **Dirulaguntzetan** aplikatu beharreko genero berdintasuneko irizpideak berraztertzea.
- Klubei genero berdintasunari buruzko **formakuntza** ematea. Berdintasun Arloarekin lankidetzan, klubetako zuzendaritza taldeak eta entrenatzaileak berdintasunean prestatzeko/gaitzeko programa bat diseinatzea.
- Emakumeek klubetan duten partaidetza sustatzeko programa bat prestatzea. Klubekin **lankidetzan** aritzea, emakumeen artean kirol praktika federatua bultzatzeko eta beste funtzio batzuetan eta ardura postuetan presentzia handiagoa izan dezaten lortzeko.



GIZARTEA



Kod.	Proiektu estrategikoa
9	EUSKARA ETA KIROLA
	Helburua
	Ermuko Udaleko Kirol Alorraren eta kirol klubien komunikazioan euskararen erabilera sustatzea.

DESKRIBAPENA


Kirola tresna ahaltsua da aisialdian eta eremu funtzional ez-formaletan euskararen erabilera sustatzeko. Sozializatorako esparru garrantzitsua da, bereziki gazteentzat, eta, hortaz, ingurune ezin hobea da euskara bultzatzeko.

Berdintasunaren kasuan gertatzen den moduan, barne zein kanpo aplikazioa planteatzen dira. Udalaren barruan euskararen erabilera areagotzeko ekintzak eta klubien nahiz kirolarien artean euskararen erabilera indartzeko ekintzak.

9.1. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLAN OROKORRA APLIKATZEA

Planak administrazioak berak ezarri beharreko zenbait neurri jasotzen ditu:

- Administrazioan euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea.
- Langileen hizkuntza gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea.
- Hizkuntza bakoitzaren erabilera irizpideak ezartzea. Puntu honetan, kirol zerbitzuetan hizkuntza bakoitza erabiltzeko semaforo ereduak ekimen interesgarriak dira, kanpo inpaktua dutelako. Semaforo ereduak begiraleek ikastaroko parte hartzaileen ezagutza mailaren arabera eskoletan erabiliko duten euskara maila finkatzeko metodo bat da. Hiru maila ezarri ohi dira; horregatik lotzen da semaforoarekin. Euskararen ezagutza oso txikia bada, lehenengo maila ezartzen da, eta agurretan eta adierazpide zehatz batzuetan bakarrik erabiltzen da euskara. Taldeak ezagutza maila ertaina badu, gehiagotan erabil daiteke hizkuntza, baita ariketa batzuetan ere. Taldearen ezagutza maila handia bada, nagusiki euskara erabiltzen da saio osoan.



GIZARTEA




Kod.	Proiektu estrategikoa
9	EUSKARA ETA KIROLA Helburua Ermuko Udaleko Kirol Alorraren eta kirol klubetako komunikazioan euskararen erabilera sustatzea.

9.2. KLUBETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

- **Dirulaguntzetako** baremazio irizpideak berraztertzea, klubetako komunikazioetan euskara erabil dezaten mesedetzeko.
- Klubei euskararako **itzulpen** zerbitzua eskaintzea.
- Euskarazko **material tekniko**en gordailu bat abian jartzea, entrenamenduetan eta lehiaketetan erabiltzeko.


EKONOMIA



EKONOMIA eremu estrategikoko proiektuek helburutzat dute Ermuan dinamika berritzailea sortzea kirolaren esparruan. Kirolaren eta jarduera fisikoaren alderdi ekonomikoa oso garrantzitsua denez, Ermuak rol propioa eta garrantzitsua lortu behar du Euskadiko kirol berrikuntzaren ekosisteman.

10. KIROL ARLOKO BERRIKUNTZA ETA EKINTZAIETZA

10.1. ERMUA KIROL LIVING LAB



Kod.	Proiektu estrategikoa
10	KIROL ARLOKO BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILTZA
	Helburua
	Herritarren bizi kalitateari aplikatutako kirol berrikuntzako proiektuak babestea.

DESKRIBAPENA


Hiriek eta lurraldeek askotan erabiltzen dute kirola beren erakargarritasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko. Tradizionalki, kirol ekitaldiak eta, zenbait kasutan, baita horiei lotutako instalazio handiak ere, hiri irudian oinarritutako planteamenduetatik sustatu izan dira. Baina azken urteotan asko ugaritu dira kirol esparruko *startup*ak eta enpresa berritzaileak sustatzeko ekimenak.

Tokiko, eskualdeetako eta nazioarteko administrazioek argi dute kirolak hiri eta lurraldeen garapen ekonomikoan lagundu dezakeela, garatzen ari den sektore bat delako eta inpaktu bereziki handia duelako lanpostuen sorreran eta tokiko garapen ekonomikoan; era berean, beste sektore batzuetan ere eragiten ditu efektuak.

Euskadin, abian jartzen ari dira halako ekimen batzuk, eta Ermuak bere lekua aurkitu nahi du kirol berrikuntzaren euskal ekosisteman.

10.1. ERMUA KIROL LIVING LAB

Balorazioaren arabera, kirol berrikuntzaren euskal ekosistema hasiberrian bada espazio bat non Ermuak eginkizun garrantzitsua bete dezakeen, udalerriak duela askotik lantzen dituen ekimenak aprobetxatuz. Aukera horri erantzuteko sortzen da **laborategia**, **prototipoak** agertoki erreal batean aplikatzeko, hau da, udalerrian bertan, eta **herritarren partaidetzan** oinarritutako berrikuntza ekimenak garatzeko (helize laukitzeko eta boskoitzeko berrikuntza ereduak).




Kod.	Proiektu estrategikoa
10	KIROL ARLOKO BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILTZA
	Helburua
	Herritarren bizi kalitateari aplikatutako kirol berrikuntzako proiektuak babestea.

Lau lan ildo handi identifikatu dira ERMUA KIROL LIVING LAB laborategirako:

- **Kiroleko Living Lab.** Kirolarekin eta jarduera fisikoarekin lotutako proiektu teknologikoak eta berrikuntza proiektuak erakartzeko programa. Ermuko udalerria proiektu horiek probatzeko eta testuinguru batean kokatuta garatzeko laborategia izango da.
- **Kirolera eta jarduera fisikora aplikatutako IoT.** Gauzen Interneteko (IoT) soluzioak ezartzea herritarren jarduera fisikoko eta kiroleko praktikak dinamizatzeko eta monitorizatzeko, kirol espazio itxietan eta, bereziki, espazio irekietan.
- **Kirolaren bidez STEAM konpetentziak garatzea.** Ermuan antolatzen diren STEAM konpetentzien tailerretan jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotura duten edukiak, proposamenak eta erronkak sartzea.
- **Jarduera fisikoari eta osasunari buruzko datuen ekonomia.** Berezko estrategia bat diseinatzea, abiapuntutzat hartuta Ermua Mugi programaren bidez lortutako datu ugariak, Kirol Alorraren beraren datuak, Udalaren beste datu base batzuetako datuak eta beste erakunde batzuetakoak. Estrategiak barne hartuko ditu datu baseen ustiapenean oinarritutako negozio ereduak dauzkaten ekimenak, jarduerak edo/eta proiektuak garatzeko ekintzak.

GOBERNANTZA ADIMENDUNA



GOBERNANTZA ADIMENDUNA eremu estrategikoko proiektuek udalerriko kirol eredu berri baten gobernantzarako bide-erakusle izan nahi dute. Eredu horretan Udaleko Kirol Alorra dinamizatzailea/bideratzailea izango da. Transbertsalitatea funtsezkoa da Plan honetan planteatutako estrategien modukoei heltzeko orduan.

Datuen kudeaketa eta barne zein kanpo ezagutzaren sorrera erabat ezinbestekoak dira, udalerrian kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko eredu honen jasangarritasunerako.

11. KIROL TRANSBERTSALA


11.1. BARNE BERREGITURAKETA

11.2. SAILEN ARTEKO LANKIDETZA LERROAK

12. DATUAK ETA EZAGUTZA

12.1. ELKARRERAGINGARRITASUNA ETA DATU ITURRI BERRIAK

12.2. JASANGARRITASUNERAKO ETA GIZARTE INKLUSIORAKO ADIERAZLE BERRIAK



GOVERNANTZA ADIMENDUNA



Kod.	Proiektu estrategikoa
11	KIROL TRANSBERTSALA
	Helburua
	Udaleko kirol kudeaketarako sistema beste alor batzuekiko lankidetzara irekitzea, inpaktu handiagoak lortzeko.

DESKRIBAPENA

Era askotako faktoreek dute eragina bizi estiloen aktibotasun mailan, eta, horrenbestez, osagai anitzeko estrategiak erabiliz heldu behar zaio gaiari. Ezinbestekoa da hainbat eremutako eragileak inplikatzeko eta horiek modu koordinatuan jardutea, jarduera fisikoko ohituretan aldaketa iraunkorrak lortzeko.


Bestalde, kirolak eta jarduera fisikoak pertsonengan eta hirietan duten eragina hainbat alderditan nabari da: osasuna, ekonomia, ongizatea, sozializazioa, inklusioa, hezkuntza, etab.

Bi errealitate horiek ikusirik, kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko politikak kudeatzeko modua birbideratzeko beharra planteatzen da. Erronken konplexutasunak eta inpaktuen aniztasunak beharrezko egiten dute eredu transbertsal eta kolaboratiboago bat aplikatzeko estrategia eraginkorrak garatzeko.

11.1. BARNE EGITURAKETA

Kirol Alorak urtebete baino ez darama martxan, eta garai bateko Udal Kirol Erakundea desegin zenean eratu zen. Epe honetan, bere izaera berrira egokitu da, baina barne kudeaketako zereginen exigentzia (kiroldegia) dela eta, ezin izan die heldu jarduera fisikoa eta kirola **instalazioetatik kanpo** sustatzearekin lotutako beste **proiektu** batzuei.

Kirol Alorra birdiseinatzea eta berregituratzea aurreikusten da. Izan ere, egokitu egin behar du instalazioen eta bertako zerbitzuen kudeaketatik haratago bete behar dituen zeregin berrietara.



GOVERNANTZA ADIMENDUNA




Kod.	Proiektu estrategikoa
11	KIROL TRANSBERTSALA
	Helburua
	Udaleko kirol kudeaketarako sistema beste alor batzuekiko lankidetzara irekitzea, inpaktu handiagoak lortzeko.

11.2. SAILEN ARTEKO LANKIDETZA LERROAK

Proiektu transbertsaletan Udaleko beste alor batzuekin lankidetzan aritzeak ohiko joera izan behar du. Plan honetan lankidetzak hauek proposatzen dira:

- Hirigintzarekin, mugikortasun aktiboko proiektuetarako (seinaleztapena, bizikletentzako aparkalekuak instalazioetan...)
- Hirigintzarekin, hiriko espazioak aktibatzeak.
- Gizarte Zerbitzuekin, kasuak bideratzeko eta kirol inklusiboa sustatzeko.
- Hezkuntzarekin, guraso elkarteen egiturei laguntzeko.
- Garapen ekonomikoarekin, HUBekin elkarlana egiteko.
- Euskara Alorrarekin, euskara eta kirolaren arteko lotura lantzeko.
- Berdintasun Alorrarekin, kirolean berdintasuna lantzeko.



GOVERNANTZA ADIMENDUNA



Kod.	Proiektu estrategikoa
12	DATUAK ETA EZAGUTZA
	Helburua
	Ermuko kirol arloko errealitateari buruzko datu berriak sortu eta erabiltzea, erabaki hobeak hartzeko.

DESKRIBAPENA

Ermuan kirolaren eta jarduera fisikoaren inguruan sortutako datuen kopurua nabarmenki hazten ari da, eta baliabide baliotsua da, hiria behar bezala kudeatzeko eta herritarrak nahiz erakundearen beraren hobekuntza xedetzat dituzten berrikuntzak sortzeko.


Joera hori ikusirik, eta helburutzat hartuta planteatutako Datuaren Elkarreragingarritasun eta Ekonomia Proiektua, garrantzitsua da Ermuko Kirol Alorrek proiektu bat martxan jartzea kirol datuak jaso, bildu, tratatu eta ustiatzeko, izan erakundearen beraren eta bertako zerbitzuen datuak, izan Ermuan instalazio irekietan edo espazio publikoan egiten diren beste praktika batzuenak.

Gainera, datuen kudeaketa horri esker, ebaluazio eta jarraipen sistema egokitu egin ahal izango da, Ermuko kirol sistemak jasangarritasun estandar handiagoak lor ditzan.

12.1. ELKARRERAGINGARRITASUNA ETA DATU ITURRI BERRIAK

Datuak aztertzeko eta integratzeko duen ahalmena kontuan hartuta, udalerrian **Qlik plataforma** aplikatzeak elkarreragingarritasun handiagorako aukera eman dezake, eta datuak aberastea nahiz datu eratorriak sortzea ahalbidetu dezake.

Ildo horretan, Kirol Alorretik plataforma egokiro ustiatzeko lan egin beharko da, eta elkarreragingarritasuna sustatu beharko da, beste alor eta administrazio batzuekiko lankidetzat, transferentzia teknologikoa eta administrazio teknologikoaren garapena sustatzeko Ermuko Udaleko Kirol Alorrean.



GOVERNANTZA ADIMENDUNA



Kod.	Proiektu estrategikoa
12	DATUAK ETA EZAGUTZA
	Helburua
	Ermuko kirol arloko errealitateari buruzko datu berriak sortu eta erabiltzea, erabaki hobeak hartzeko.

ELKARRERAGINGARRITASUNA programan, garrantzitsua da, halaber, beste kanpo hornitzaile batzuek jasotako datuak gehitzeko aukera aztertzea. Kanpo hornitzaileak izan daitezke, adibidez, sare sozial digitalak edo Plan honen azterketan erabiltzeko Strava datu basea.

12.2. JASANGARRITASUNERAKO ETA GIZARTE INKLUSIORAKO ADIERAZLE BERRIAK

Aginte Taula zabaltzea, bertan txertatzeko kirol jardueren ingurumen inpaktua eta inpaktu soziala jasoko dituzten adierazle berriak.

- Adierazle berrien diseinua
- Beharrezko datuen identifikazioa
- Iturrien aukeraketa
- Kalkulurako tresnak
- Jarraipen sistema
- Gardentasuna: datuen aukeraketa eta publikoki aurkezteko modua.

KRONOGRAMA

	Lehentasuna	2022		2023		2024	
		1. Sei.	2. Sei.	1. Sei.	2. Sei.	1. Sei.	2. Sei.
LURRALDEA							
1. IBILBIDE SAREA							
OINEZKOENTZAKO IBILBIDE SAREA EGOKITZEKO ESKU HARTZEEN PROGRAMA	*						
2. HIRIKO ESPAZIOEN AKTIBAZIOA							
2.1. ARIZMENDI PILOTALEKUAREN ONDOKO PLAZA- SAN PELAYO KALEA 44-58	**						
2.2. ANAITASUNA IKASTOLAKO ETA ONGARAI HLHI-KO EREMUA	*						
2.3. OKINZURIKO KIROL KANTXAK ETA PARKEA	**						
3. ESPAZIO IRISGARRIAK ETA JASANGARRIAK							
3.1. KIROL PRAKTIKA ASKERAKO ESPAZIO IREKIAK	**						
3.2. AIRE ZABALEKO IGERILEKUA	*						
3.3. KIROL ESPAZIOETARAKO IRISGARRITASUNA	**						
3.4. KIROL ESPAZIOEN INGURUMEN JASANGARRITASUNA	***						
4. EKITALDIEN ESTRATEGIA							
4.1. EKITALDIEN PROGRAMA ETA AGENDA	*						
GIZARTEA							
5. EGITURAK ETA EKOSISTEMA							
5.1. KIROL KLUBETARAKO LAGUNTZA	**						
5.2. GURASO ELKARTEETARAKO LAGUNTZA	**						
6. ERMUA MUGI							
6.1. ERMUA MUGI PROIEKTUA BIRDISEINATZEA	***						
7. KIROL INKLUSIBOA							
7.1. KIROLA INKLUSIO TRESNA GISA	***						
8. BERDINTASUNA KIROLEAN							
8.1. ERMUAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA APLIKATZEA	*						
8.2. BERDINTASUNA KLUBETAN	*						
9. EUSKARA ETA KIROLA							
9.1. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLAN OROKORRA APLIKATZEA	**						
9.2. KLUBETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA	*						
EKONOMIA							
10. KIROL ARLOKO BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILTZA							
10.1. ERMUA KIROL LIVING LAB	*						
GOBERNANTZA ADIMENDUNA							
11. KIROL TRANSBERTSALA							
11.1. BARNE BERREGITURAKETA	***						
11.2. SAILEN ARTEKO LANKIDETZA LERROAK	***						
12. DATUAK ETA EZAGUTZA							
12.1. ELKARRERAGINGARRITASUNA ETA DATU ITURRI BERRIAK	***						
12.2. JASANGARRITASUNERAKO ETA GIZARTE INKLUSIORAKO ADIERAZLE BERRIAK	***						



murua: